

2010 urteko txostena

EAE-ko ekonomiaren analisi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA
OGASUN SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2010

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	8
Munduko ekonomiaren bilakaera	8
Analisia herrialdeka	11
Espainiako ekonomia	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	17
EKOIZPEN ARLOAK.....	17
Sarrera	17
Lehen arloa	18
Industria	19
Eraikuntza	23
Zerbitzuak	24
ESKARIA	27
Sarrera	27
Gastua azken kontsumoan	28
Kapital eraketa gordina	30
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	31
LAN MERKATUA	37
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	45
ARLO PUBLIKOA	52
FINANTZA ARLOA	56

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Bi urteko atzeraldi bizia nozitu ondoren, 2010. urtean EAEko ekonomiak urte arteko aldakuntza tasa positiboak berreskuratzea lortu zuen, nahiz eta hazkunde erritmoa %0,3 bakarrik izan zen. Atzeraldia gainditu bada ere, EAEko ekonomiaren susperraldi erritmoa munduko ekonomiarena baino nabarmen motelagoa da, baita Europar Batasunarena ere. Hain zuzen ere, inguruneko herrialdeek erakutsi zuten bizitasunaren ondorioz EAEko susperraldia kanpo arloan oinarritu zen. Izan ere, barne eskariak bigarren urtez jarraian beherakadak jaso zituen aurreko urteko emaitzen aldean, baina kanpo arloaren ekarpena positiboa izan zen berriro eta ehuneko puntu batera iritsi zen. Hiruhilabeteetako analisiak erakusten du tasa positiboak bigarren hiruhilekoan bertan berreskuratu zirela, baina zailtasun handiak zeudela bilakaera erritmoa biziagotzeko, berau nahiko apala izan baitzen.

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

Oro har, munduko ekonomiak azken hogeita hamar urteko batez bestea baino gehiago areagotu zuen bere BPG 2010ean eta atzeraldiaren aurreko balioetara hurbildu zen dagoeneko. Hain zuzen ere, Nazioarteko Diru Funtsak %5,0an estimatu du urte horretarako gehikuntza tasa eta balio hori 2006an eta 2007an bakarrik gainditu da. Urte horietan gertatu zen bezala,

2010eko urteko txostena

bizitasun handiena garapen bidean dauden herrialdeetan hauteman zen, Txina buruan zegoelarik, herrialde horretako gehikuntza tasak (%10,3) aurreko bi urteko balioak gainditu zituelako. Horren ondorioz, Asiako erraldoia munduko bigarren potentzia da orain, Japoniaren aurretik. BPGri eginiko ekarpenetan, Txinako ekonomiak munduko gehikuntzaren laurden bat bereganatu zuen 2010ean. Indiaren hazkundera antzekoa izan zen (%10,4), baina munduko ekonomian pisu gutxiago duenez, bere ekarpena sei hamarrenetara mugatu zen. Guztira, BPGren hazkundera bost puntuetatik, hiru puntu eta erdi garapen bidean dauden herrialdeetan lortu ziren, munduko ekoizpenaren egituran pisua irabazten jarraitzen baitute.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia garatuak	52,3	3,0	1,5	Garatu gabeak	47,7	7,3	3,5
AEB	19,7	2,8	0,6	Txina	13,6	10,3	1,4
Eurogunea	14,6	1,7	0,2	India	5,4	10,4	0,6
Japonia	5,8	3,9	0,2	Errusia	3,0	4,0	0,1
Erresuma Batua	2,9	1,3	0,0	Brasil	2,9	7,5	0,2
Kanada	1,8	3,1	0,1	Mexiko	2,1	5,5	0,1
Besteak	7,5	5,7	0,4	Besteak	20,7	5,4	1,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Ekonomia aurreratuen multzoak azken lau urteko emaitzarik onena jaso zuen (%3,0) eta azken hogeita hamar urteko batez bestea (%2,6) gainditu zuen. Beraz, hainbat hamarkadetan pairatu duen atzeraldi bortitzenetik nahiko azkar irten dela baieztatuta geratu da. Ekonomia garatuak biltzen dituzten eremu guztiek aldakuntza tasa positiboak berreskuratu zituzten, baina AEBek eta Japoniak ekonomia suspertzeko prozesuaren lidergoa hartu zuten. Zehazkiago adierazita, estatubatuar ekonomia %2,8 hazi zen eta Japoniak %3,9 areagotu zuen bere BPG. Europako herrialdeak atzeratuago zeuden irteteko bidean eta, oro har, %1,8 handitu zuten produktu gordina. Hala eta guztiz ere, eremu horren barnean oso bestelako portaerak hauteman ziren, zeren eta Alemaniak (%3,5) erakutsi zuen bizitasun sendoaren aurrean, beste herrialde garrantzitsu batzuk, hala nola Frantzia, Italia edo Erresuma Batua, batez bestearen azpitik kokatu ziren, eta Espainiak tasa negatibo bat jaso zuen berriro, txikia izan bazen ere (%-0,1).

BPG ERREALAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Munduko ekonomia	4,6	5,2	5,4	2,9	-0,5	5,0
AEB	3,1	2,7	1,9	0,0	-2,6	2,8
Japonia	1,9	2,0	2,4	-1,2	-6,3	3,9
Txina	11,3	12,7	14,2	9,6	9,2	10,3
Europar Batasuna	2,2	3,5	3,2	0,7	-4,1	1,8
- Alemania	0,9	3,6	2,8	0,7	-4,7	3,5
- Frantzia	2,0	2,4	2,3	0,1	-2,5	1,5
- Erresuma Batua	2,2	2,8	2,7	-0,1	-4,9	1,3
- Italia	0,7	2,0	1,5	-1,3	-5,2	1,3
- Espainia	3,6	4,0	3,6	0,9	-3,7	-0,1
- EAE	4,0	4,4	4,2	1,3	-3,8	0,3

Iturria: NDF eta Eustat.

Oro har, herrialde garatuetako susperraldi eredua bi zutabetan oinarritu zen. Alde batetik, nazioarteko merkataritzak urtean zehar bizi zuen hedatze bizian (%12,4), 2009ko galgaren ondoren (%-10,9) eta garapen bidean dauden herrialdeen bizitasunak bultzatuta. Beste aldetik, gobernuek ekonomia suspertzeko martxan jarri zituzten egitasmoek barne eskaria gutxiago jaisten lagundu zuten. Neurri horiek eragin garrantzitsua izan zuten kontu publikoetan eta zurrunbiloak sortu zituzten finantza merkatuetan, Euroguneko periferian dauden herrialdeen zorraren inguruan piztu zen mesfidantzarengatik. Halaber, ekonomien susperraldiak eta eskaintzaren zenbait desorekak petrolioaren eta lehengaien salneurria %25 baino zertxobait gehiago igoarazi zuten, eta horrek hazkunde erritmoa bere horretan mantentzea oztopatu dezake 2011. urtean.


Hazkunde orokorreko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak %0,3 areagotu zuen bere BPG 2010. urtean. Zenbateko hori Espainiarentzat estimatu den datuaren gaintik (%-0,1) baina Europako batez bestearen oso azpitik (%1,8) kokatzen da. Hazkunde tasa positiboa izan arren, epe luzerako analisiak agerian uzten du gaur eguneko ekoizpena 2006ko amaierako bera dela eta oraindik lau puntu inguru berreskuratu behar direla krisiaren aurreko egoerara itzultzeko. Enpleguaren bilakaera ekoizpenarena baino are okerragoa da, zeren eta 2010. urtean lanpostuak galdu baitziren berriro eta 2005eko amaieran zegoen maila berean kokatu

2010eko urteko txostena


baita. Kasu horretan, serie historikoan inoiz jaso den lanpostuen maila gorenekoan (2008an) baino ia 43.000 enplegu gutxiago zeuden 2010. urtean

BPGren eta enpleguaren bilakaera EAEn

BPG. 2005 = 100



Enplegua. 2005 = 100



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


Eskariaren ikuspegitik, EAeko ekonomiaren susperraldia atzerriko merkatuen bilakaera onean oinarritu da, esportazioen gorakada garrantzitsu bat ahalbidetu zutelako, 2008ko emaitza hutsalaren eta 2009ko beherakada biziaren ondoren. Ekoizkin batzuen erosketen eta salmenten artean dagoen lotura estuak inportazioen gorakada ere eragin zuen, nahiz eta azken horien igoera nabarmen txikiagoa izan zen. Aurrekoaren ondorioz, kanpo saldoak BPGren gehikuntzari egin zion ekarpena puntu batekoa izan zen. Ekarpene hori aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen, baina oso garrantzitsua da oraindik, bereziki kontuan hartzen bada kanpo saldoak hamarrenak kendu ohi dizkiola EAeko BPGri.

Barne eskariaren osagaien artean, azken kontsumoaren susperraldia hauteman zen, kapitaleko eraketa gordinak jaitsierako hirugarren urtea kateatu zuen bitartean. Kontu ekonomikoek ekipamenduan eginiko inbertsioaren eta eraikuntzan eginiko inbertsioaren artean bereizten ez badute ere, koiunturako adierazleen argibideek iradokitzen dute agregatuaren zailtasunak bigarren multzo horretan daudela, ekipamenduko ondasunetan eginiko inbertsioa neurri batean suspertu zen bitartean, atzerriko eskariari esker. Kontsumoari dagokionez, familiek


%0,8 areagotu zuten beren gastu erreala, 2009ko jaitsiera garrantzitsuaren ondoren. Konfiantza pausoz pauso berreskuratu izanak lagundu zuen familiek kontsumo handiagoko ohiturak berreskuratzen, aurrezki tasa altuak motelduz. Lan merkatuaren zailtasunek eta aberastasunaren galera kontsumoko prezioen bilakaerarekin konpentsatu ziren, urte zati handi batean oso gutxi hazi zirelako.

EAEko BPGri eginiko ekarpenak

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Administrazio publikoetako kontsumoak, berriz, nabarmen moteldu zuen aurreko urteetako gehikuntza erritmoa, defizit publikoa gutxitzeko beharrak baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, kontsumo publikoa %1,3 hazi zen termino errealean eta tarte handiz gainditu zuen BPGren gehikuntza.

Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak bakarrik jaso zituen tasa negatiboak 2010. urtean, baina sektore horren jaitsiera aurreko bi urteetako baino are handiagoa izan zen. Beraz, dagoeneko hiru ekitaldi kateatu ditu urte arteko beherakadak jasoz, hiru urteko epealdi horretan balio erantsia %16 murriztu delarik. Sektorearen ahultasunaren atzean, saldu gabeko bizitegien kopuru altuak eta arlo publikoaren herstura planak daude. Industriak aurreko urteko beherakada bizia galgatzea lortu zuen eta hazkunde tasa positiboak 2010eko bigarren hiruhilekoan berreskuratu zituen. Hala ere, suspertzeko erritmoa apala da, barne merkatuak

2010eko urteko txostena

ezin izan zuelako gora egin. Zehazkiago, industriaren balio erantsiak hamalau puntu berreskuratu behar ditu krisiaren aurreko mailara itzultzeko.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Barneko azken kontsumoa	3,8	3,8	4,1	1,9	-2,1	0,9
Familien kontsumoko gastua	4,1	3,7	3,6	0,6	-3,7	0,8
Herri administrazioen kontsumoa	2,7	4,3	6,4	7,0	3,7	1,3
Kapital eraketa gordina	6,1	5,9	4,6	-2,2	-15,4	-6,0
Barne eskaria	4,4	4,4	4,3	0,7	-5,7	-0,7
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-0,7	-0,2	-0,3	0,5	2,3	1,0
Esportazioak	5,1	6,2	5,4	0,0	-18,4	8,4
Inportazioak	5,8	6,1	5,4	-0,8	-20,1	5,9
BPG (m.p.)	4,0	4,4	4,2	1,3	-3,8	0,3
Lehen arloa	-13,8	-4,4	0,0	-6,1	3,6	-2,8
Industria	4,9	4,2	3,1	-0,6	-12,7	0,4
Eraikuntza	4,7	4,2	11,3	-5,8	-3,6	-5,9
Zerbitzuak	3,5	4,5	4,1	3,3	-0,2	0,8
Merkatuko zerbitzuak	3,5	4,8	3,9	2,5	-1,0	0,8
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	3,4	3,3	4,8	6,9	3,4	0,8
Balio erantsi gordina	3,8	4,3	4,4	1,2	-4,0	0,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,0	4,8	2,8	2,3	-2,0	2,1

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena ehuneko puntutan.
Iturria: Eustat.

Zerbitzuei dagokienez, merkaturatzen diren zerbitzuek erritmoa berreskuratu zuten eta aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten, kontsumo pribatuaren bilakaerarekin bat eginez. Turismoa izan zen portaera onena erakutsi zuten adarretako bat. Merkaturatzen ez diren zerbitzuek, berriz, nabarmen apaldu zituzten aurreko urteetako hazkunde biziak, gastu publikoa gutxitzeko eta defizita murrizteko beharrak baldintzatuta. Norabide beretik joan ziren urtean zehar onartu ziren zerga tipoen igoerak ere. Beraien artean, azpimarratu behar dira uztailean onartu zen BEZarena. Zerga igoera horien ondorioz, ekoizkinen gaineko zerga garbien atalak %2,1eko gehikuntza izan zuen.

EAEko barne produktu gordinak 2010. urtean izan zuen gehikuntza tasa txikia ez zen nahiko izan lanpostuen galera saihesteko eta urte osoan enplegua %0,8 murriztu zen, hau da, 8.000 lanpostu inguru galdu ziren. Eragina industrian eta eraikuntzan nabaritu zen, zerbitzuek landunen kopurua mila gutxi batzuk igo zuten bitartean. Langileen kopurua eskariaren ahultasunari egokitzeak lan faktorearen itxurazko produktibitatea %1,1 igotzea ekarri zuen berekin, azken hamabost urteko batez bestearekin bat datorrena. Hala ere, produktibitate irabaziak prozesuen hobekuntzen bitartez edo kapital zuzkidura handiagoen bitartez lortu ohi ziren, eta ez landunen kopurua jaitsiz.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE27=100)	129,3	134,2	136,4	137,5	138,7	136,9
BPG erreala merkatu prezioetan	4,0	4,4	4,2	1,3	-3,8	0,3
Enplegua	2,2	2,2	2,8	0,3	-3,4	-0,8
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	1,7	2,1	1,4	1,0	-0,4	1,1
BPG nominala merkatu prezioetan	7,5	7,8	7,6	2,3	-4,9	2,0
BPGren deflatorea	3,4	3,3	3,2	0,9	-1,2	1,7
KPI (urteko batez besteak)	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7
Soldata igoera	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7	1,9
Langabezia tasa	5,7	4,1	3,3	3,8	8,1	9,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

Termino nominaletan, EAEko barne produktu gordina %2,0 hazi zen. Beraz, deflatorea %1,7 igo zen, KPI indizearen batez bestetik oso hurbil dagoen tasa bat delarik. Lan merkatuaren zailtasunek soldaten eskakizunak nabarmen apaltzeko balio zuten, azken urteetako igoera txikiena jaso zutelako. Azkenik, langabezia tasa puntu bat baino zertxobait gehiago igo zen eta %9,2an kokatu, nahiz eta urtearen azken zatian %10,0ra iritsi zen, Europako batez bestea zertxobait gaindituz.

EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2010. urtea gogoratua izango da munduko ekonomiaren portaera onarengatik, 2009ko emaitza etsigarrien ondoren. Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) lehen estimazioen arabera, munduko BPG %5,0 hazi zen 2010ean. Tasa horrek bost puntu eta erdiz hobetzen du 2009an gertatu zen jaitsiera, eta krisiaren aurreko urteetan lortu ziren emaitzen antzekoa da. Gogoratu behar da urte horietan azken hogeita hamar urteko baliorik gorenak jaso zirela. Beraz, maila global batean, Atzeraldi Handia delakoak oso eragin mugatua izan zuen munduko BPGn eta ekonomiaren susperraldia nahiko azkarra izan da. Hala eta guztiz ere, portaera agregatu horren atzean oso bestelako egoerak ezkututzen dira, aztertu nahi diren ekonomia eremuetan emaitzak ezberdinak izan zirelako.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK


	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Mundua	-0,5	5,0	2,5	3,7	---	---
ELGE	-3,4	2,8	0,5	1,9	8,1	8,3
AEB	-2,6	2,9	-0,8	2,4	9,3	9,6
Japonia	-6,3	3,9	-1,4	-0,7	5,1	5,1
EB 27	-4,2	1,8	1,0	2,1	8,9	9,6
Alemania	-4,7	3,6	0,2	1,2	7,5	6,8
Frantzia	-2,6	1,6	0,1	1,7	9,5	9,7
Erresuma Batua	-4,9	1,3	2,2	3,3	7,6	7,8
Italia	-5,2	1,3	0,8	1,6	7,8	8,4
Espainia	-3,7	-0,1	-0,2	2,0	18,0	20,1
Garapen bidean dauden herrialdeak	2,7	7,3	5,2	6,2	---	---
Asia	7,2	9,5	3,1	6,0	---	---
Txina	9,2	10,3	-0,7	3,3	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	-1,7	6,1	6,0	6,0	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	-3,6	4,2	4,7	5,3	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.


Garapen bidean dauden ekonomiak, lehen tokietan Asiako ekonomiak zeudelarik, oso bizkor hazi ziren. Beraien jardura hain sendoa izan zen ezen gainontzeko herrialdeetako egoera askoz ere ahulagoa izan zen arren, herrialde horietako kanpo arloak, kontsumo pribatuak eta inbertsioak ia ez baitzuten inolako kalterik nozitu. Ekonomia aurreratuek, berriz, hazkunde txikiagoak lortu zituzten eta erritmo ezberdinak jaso. Euroguneko ekonomia batzuk, haien artean Espainia, atzeratuago zeuden.

Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekonomia garatuak




Ekonomia garatu gabeak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

2010eko urteko txostena

Hain zuzen ere, nazioarteko merkataritzak 2008an eta 2009an bizi zuen beherakada garrantzitsuaren ondoren, 2010. urtean garapen bidean dauden ekonomiek, hazkunde eredu orekatuago eta nazioarteko merkataritzaren gorabeheretatik libreago bat lortu nahian, beren politikak aldatzea erabaki zuten, barne eskaria sendotuko dutenetan fokatuz. Hazkunde eredu horrek garapen bidean dauden Asiako herrialdeak %9,5 haztea lagundu zuen, bereziki Txinaren eta Indiaren bultzadari esker. Beraien hazkunde tasak apartak izan ziren eta tamaina handiko bi herrialde direnez, munduko ekonomiaren hazkundeari ekarpen handia egin zioten. Hain zuzen ere, munduko ekonomia hazi zen bost puntuetatik bi ekarri zituzten. Amerika Latinoak ere emaitza onak lortu zituen. Ekonomia politika hedakorrak ezarri izanak, atzerriko kapital fluxuen sarrera garrantzitsuak eta lehengaien eskari biziak eremu hau %6,1 haztea ahalbidetu zuten, azken hogeita hamar urteko emaitzarik onena delarik. Latinoamerikar ekonomien artean, Argentinak, Brasilek eta Peruk lortu zituzten aurrerakadak nabarmendu behar dira, hazkunde tasak %7aren eta %9aren artean kokatu zirelako.

Ekonomia aurreratuen multzoak ere atzean utzi zuen azken urteetako atzeraldirik gogorrena, baina irteera erritmoa garatzen ari diren herrialdeena baino askoz ere apalagoa izan zen. Ekonomia jarduera laguntzeko eta sustatzeko egitasmoek eta nazioarteko merkataritzaren gorakada biziak %3,0ra eramane zuten eremuaren hazkunde tasa. Eremu garatu guztiek gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten, baina susperraldia abiadura ezberdinetan bizi zen batzuetan eta bestetan.

Paradoxikoa izan arren, krisiaren epizentroa izan zen herrialdea, hots, AEB, azkar irten zen krisitik eta %2,9 hazi zen 2010ean. Tasa hori ez da iristen krisia hasi baino lehen lortu ziren mailetara, baina azken hiru hamarkadetako batez bestea baino hamarren bat handiagoa da. Beste aldetik, nazioarteko merkataritzaren hobekuntzak eta, bereziki, esportazioen hazkunde sendoak Japoniako BPG %3,9ra gorarazi zuten. Tasa hori japoniar ekonomiak azken bi hamarkadetan lortu duen emaitzarik gorena da, eta herrialde garatu batek izan duen susperraldirik biziena, 2009. urtean jaso zuen datua (%-6,3) hamar puntutan baino zertxobait gehiago hobetu zuelako.

Eurogunea, berriz, zalantzan jarri zuen eraiki zuen batasuna, eremu horretakoak diren hainbat herrialderen gehiegizko zorpetzearen ondorioz. Herrialde kopuru handi batek aurkeztu zuen doikuntza fiskaleko egitasmoei esker, Eurogunea %1,7 hazi zen. Emaitza hori nahiko apala da garatutako gainontzeko eremuek lortu zituzten tasekin alderatzen bada, baina garrantzitsua da, 2010. urtean zurrumbilo asko bizi ziren arren, 2009an nozitu zen %-4,1eko beherakada bizia gaintitzea lortu zelako.

Prezioei dagokienez, bilakaera oso ezberdina izan zen ekonomia eremu batzuetan eta besteetan. Izan ere, ekonomia garatuetan prezioen igoera txikia izan zen, baina garatzen ari diren herrialdeetan ekonomiaren hazkunde tasa biziak eta barne eskariaren sendotasunak kontsumoko prezioak gorarazi zituzten.

Analisisa herrialdeka

2010 urte garrantzitsua izan zen Txinarentzat eta ez bakarrik %10,3 hazi zelako eta munduko bigarren potentzia izatera iritsi zelako, Japoniak betetzen zuen tokia hartuz, hazkunde orekatua lortu zuelako ere bai. Hain zuzen ere, Txinako gobernuak ekonomia pizteko martxan jarri zituen plan eraginkorrek enpleguaren sorrera eta kontsumoaren sustapena lagundu zituzten. Horrek eta inbertsioaren sendotasunak, kreditu bat lortzeko erraztasunek sustatuta, barne eskaria areagotu zuten. Orobat, esportazioek sendotasun harrigarria erakutsi zuten eta, lehen aldiz, bi eskariek ekarpen handiak egin zituzten BPGren hazkunderari. Bilakaera bikain hori prezioen gorakadak bakarrik lainotu zuen zertxobait. Izan ere, Txinako gobernuak prezioak kontrolpean edukitzeko ahalegin handiak egin zituen arren, bertako KPI %3,3 hazi zen. Tasa hori oso handia da 2009an jaso zen %-0,7ko emaitzarekin alderatzen bada, baina azken hamar urteko batez bestearen zertxobait gainetik bakarrik dago.

AEBeK hazkunde sendoa lortu zuten 2010ean, 2008ko geldialdiaren eta 2009ko jaitsieraren ondoren. Izan ere, ekonomia jardueraren sendotasuna hain handia izan zen ezen 1976 urtera, hots, petrolioaren krisiaren irteera urte batera, joan behar baita hazkunde tasa altuago bat ikusteko. Bi urtez jarraian jaitsiera tasak izan ondoren, kontsumo pribatuak ekonomiaren bultzagile nagusiaren papera berreskuratu zuen, nahiz eta egin zuen ekarpena ohikoa baino motelagoa izan zen. Kontsumoaren gorakada garrantzitsuak eta inbertsio pribatuaren hazkundeak bide eman zioten barne eskariari 3,3 puntu baino gehiago hazkunderari ekartzeko, horrekin kanpo arloaren emaitza konpentsatuz. Deigarria da azken hogeitun urtean, atzeraldiak iraun duen hiru urteetan (2007tik 2009ra) bakarrik lortu dute kanpo eskariak ekarpen positibo bat egitea. Lan merkatua izan zen berriro kaltetuena. Krisia hasi zenetik gaur arte, langabeen kopuruak bikoiztu baino gehiago egin du, eta 7 milioi langabe egotetik 2010eko amaieran ia 15 milioi izatera igaro da. Azkenik, KPI indizeak balio positiboak berreskuratu zituen eta urteko batez bestean %2,4 hazi zen.

Japoniak eman zuen urteko ezustea. Bi urtez beherantz egin ondoren eta 2009an %-6,3ko emaitza jaso ondoren, 2010ean Japoniako barne eskariaren sendotasunak, bereziki kontsumo

2010eko urteko txostena

pribatuarenak, laurogeita hamarretako erdialdetik izan ez duen bizitasuna erakutsi baitzuen, eta esportazioen gorakadak ekonomia jarduera %3,9 haztea ahalbidetu zuten. Tasa hori garrantzitsua izan zen, baina ez zen nahiko izan munduko bigarren potentzia gisan 1968tik betetzen zuen paperari eusteko. Prezioen bilakaera, ordea, ez zen horren ona izan. 2010. urtean, Japoniak deflazioko bigarren urtea bete zuen eta 2009ko jaitsiera tasa (%-1,4) erdira murriztu bazuen ere (%-0,7), emaitza garrantzitsua izan zen oraindik. Azkenik, langabezia tasak %5,1ean jarraitu zuen, aldaketarik gabe.


Europar Batasunean portaera kontrajarriak hauteman ziren, neurri handi batean, finantza publikoen okertzeak baldintzatuta. Izan ere, Alemaniak bizitasun handia (%3,6) eta Frantziak (%1,6) edo Erresuma Batuak (%1,3) egonkortasuna erakusten zuten bitartean, beste herrialde batzuek hazkunde tasa txikiak eta baita negatiboak ere jaso zituzten. Muturretako emaitzak Greziak (%-4,5) eta Irlandak (%-1,0) eskaini zituzten. Bi herrialde horietan EBZren eta NDFren esku-hartzea beharrezkoa izan zen, ekonomia eta finantza egoera oso larria zelako.

Krisi ekonomikoaren aurreko ziklo hedakorrean zehar (2000-2007), Alemaniako hazkundea bereziki esportazioen sendotasunean oinarritu zen, eta bertako BPG, neurri handi batean, nazioarteko merkataritzaren bilakaerak baldintzatzen zuen. Kanpo arloaren mendekotasun horrek atzeraldia nabarmen larriagotu zuen eta jarduera %4,7 beheratu zuen 2009an. Hala ere, 2010ean susperraldiak hazkunde eredu ezberdin bat ekarri zuen, kanpo arloak gutxiago behar zuena, eta BPG orekatuagoa ahalbidetu zuena. Eredu berri horretan, barne eskariak, bereziki inbertsioak eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatuak, nabarmen parte hartu zuen hazkundean. Frantziako jarduera ekonomikoa kontsumoaren sendotasunean oinarritu zen, hala kontsumo publikoan nola pribatuan, eta baita inbertsioaren hobekuntzan ere, oraindik apal jarraitu zuen arren. Kanpo arloaren bilakaera azpimarratu behar da, lehen aldiz zortzi urtean ez baitzion hamarrenik kendu BPGri.


Alemanian ez bezala, Erresuma Batuak krisiaren aurreko hazkunde ereduari jarraipena eman zion berriro. Hori horrela izanda, inbertsioaren gorakadari eta bertako finantza arloaren nolabaiteko egonkortasunari esker –gobernuak gehiegizko defizita kontrolatzeko garatu zituen herstura fiskaleko planek lortu zuten egonkortasun hori- BPG %1,3 hazi zen, azken hiru hamarkadetako batez bestea baino gutxiago den baina 2009ko jaitsieraren ondoren esanguratsua den tasa bat delarik. Italian, hazkundea kontsumo pribatuan eta inbertsioan oinarritu zen, eta esportazioak suspertu baziren ere, hobekuntza hori ez zen nahiko izan kanpo arloak ekonomia jardueraren susperraldiari ekarpen bat egiteko.

BPGren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

2010eko urteko txostena

Lan merkatuaren narriadura galga handia izan zen hazkundearentzat eta Europar Batasuneko langabezia tasa %9,6an kokatu zuen, azken hamaikako urteko altuena. Alemaniak, Luxenburgok, Austriak eta Maltak lanik gabeko lagunen kopurua jaitsarazi zuten arren, Baltikoko herrialdeetako eta krisia atzean uzteko zailtasun handienak dituzten herrialdeetako langabeziaren hazkunde biziak langabeen kopuruak 23 milioi lagunen langa gainditu zuen. Hain zuzen ere, Espainian, langabezia tasa %20,1ean kokatu zen, Grezian, berriz, %12,6an eta Portugalen %11,0an. Hiru herrialde horiek bakarrik eremu osoko langabeziaren %25 baino gehiago eragin zuten.

Azkenik, inflazioak goranzko joera erakutsi zuen lehengaien eta erregaien salneurriak garestitzen ziren heinean. Hala eta guztiz ere, Euroguneko herrialde gehienetan, KPI indizea EBZk ezarri zuen %2ko helburutik hurbil geratu zen. Europako gainontzeko herrialdeetan, goranzko joera biziagoa izan zen, baina, salbuespen gutxi batzuekin, prezioak bat etorri ziren azken urteetako batez bestearekin.

Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomia ez zen aldendu bilakaera orokorretik eta, hazkunde tasa positiboak berreskuratu ez bazituen ere, begi bistako hobekuntza izan zuen 2009an jasotako %3,7ko jaitsieraren aldean. Hala eta guztiz ere, eta bizkortzea garrantzitsua izan zen arren, Espainia Europako ekonomia nagusiekiko atzeratuta dauden periferiako herrialdeen artean kokatu zen berriro. Familiak azken kontsumoan eginiko gastuaren bilakaera onak, inbertsioaren portaera horren negatiboa ez izateak eta kanpo arloaren ekarpen garrantzitsuak jardueraren hobekuntza eragin zuten. Eskaintzaren ikuspegitik, portaera kontrajarriak hauteman ziren. Izan ere, energiak, industriak eta zerbitzuek hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituzten bitartean, eraikuntzak bere jaitsiera areagotu zuen.

Lan merkatuak konpondu gabeko arazoa izaten jarraitu zuen. Hain zuzen ere, 2010. urtean, lanik gabeko pertsonen kopurua %11,6 areagotu zen 2009ko balioen aldean. Beste modu batean adierazita, 1.700.000 lagunek galdu zuten enplegua 2010. urtean zehar, INEk argitaratzen dituen biztanleria aktiboaren inkestaren arabera. Krisia hasi zenetik, langabeen kopurua %152,6 igo da, 2010eko amaieran lanik gabeko aktiboaren kopurua 4.632.400 pertsonara iritsiz. Hala eta guztiz ere, enpleguak hobekuntza garrantzitsua ezagutu zuen urte

horretan. 2009. urtean, enplegua %6,6 jaitsi eta gero, 2010ean adar guztien aldakuntza tasak ez ziren horren negatiboak izan, baina ezin izan zuten lanposturik sortu.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009(A)	2010(B)
Azken kontsumoko gastua	4,5	4,0	4,1	0,9	-2,3	0,7
-Familien gastua kontsumoan	4,2	3,8	3,7	-0,6	-4,3	1,3
-Administrazioaren gastua kontsumoan	5,5	4,6	5,5	5,8	3,2	-0,7
Kapital eraketa gordina	6,5	8,3	4,2	-4,3	-15,8	-7,6
-Kapital finkoaren eraketa gordina	7,0	7,2	4,5	-4,8	-16,0	---
Esportazioak	2,5	6,7	6,7	-1,1	-11,6	10,3
Inportazioak	7,7	10,2	8,0	-5,3	-17,8	5,4
BPG	3,6	4,0	3,6	0,9	-3,7	-0,1
Nekazaritza eta arrantza	-8,2	5,8	7,1	-2,1	1,0	-1,3
Energia	1,2	1,3	0,9	5,8	-6,4	3,0
Industria	1,1	1,9	0,8	-2,7	-13,6	0,9
Eraikuntza	5,2	4,7	2,5	-1,6	-6,2	-6,3
Zerbitzuak	4,3	4,5	4,8	2,3	-1,0	0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,1	3,7	0,9	-1,1	-6,0	0,6
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	3,4	3,5	2,8	4,1	-0,3	1,8
-Enplegua	3,2	3,2	2,9	-0,6	-6,6	-2,4
-Administrazio publikoen defizita (BPG %a)	1,1	1,8	2,2	-3,8	-11,1	-9,2

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Prezioen bilakaerari dagokionez, KPI indizeak hazkunde positiboak jaso zituen eta atzean utzi zuen 2009ko jaitsiera garrantzitsua. Erregaien eta lehengaien garestitzea eta elikagaien eta tabakoaren prezioen igoera dira susperraldi horren arrazoi nagusiak. Hala ere, azpiko inflazioak, energiako ekoizkinak eta landu gabeko elikagaiak barne hartzen ez baititu –produktu talde horiek gorabehera handienak izaten dituzte- kontrako joera erakutsi zuen. Hain zuzen ere, indize horren arabera, prezioek 2008an (%3,2) hasi zuten moteltzeko joerari jarraipena eman zioten eta 2010ean %0,6ra jaitsi zen aldakuntza tasa, KPI orokorraren baliotik (%1,8) oso beherago.

2010eko urteko txostena

Azkenik, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, administrazio publikoek kontu publikoak orekatzeko bidean aurreikusita zegoen defizit murrizketa bete zuten eta 2010eko ekitaldia 98.227 milioi euroko saldo negatibo batekin itxi zuten, BPGren %9,24 delarik. Desorekaren tamaina oraindik garrantzitsua zen arren, espainiar administrazio publikoak, urtebete bakar bateko epean, gutxi gorabehera 20.000 milioi eurotan murriztu zuen bere defizita.

EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

Ekoizpen arloak

Sarrera

EAEko barne produktu gordinak 2009an %3,8ko beherakada jaso ondoren, 2010ean munduko ekonomiak hasitako susperraldian parte hartu zuen. Hain zuzen ere, urte horretako hazkunde positiboa %0,3ra iritsi zen eta urteko bigarren hiruhilekoan bertan jaso zen lehen gehikuntza tasa positiboa urte arteko terminotan, sei hiruhilekoz jarraian jaitsierak jaso ondoren. EAEko ekonomiaren hiruhilekako bilakaerak erritmoa bizkortzeko joera erakutsi zuen urtea aurrera zihoan heinean. Termino nominaletan, hazkundea %2,0ra iritsi zen.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomia jardueraren gutxikako hobekuntza horren testuingurua merkataritzako bazkide nagusien susperraldiak eta ekonomia eragileen konfiantza zertxobait handiago batek markatu zuten. Orobat, hainbat politika ekonomiko onartu ziren diru sarrera publikoak areagotzeko eta gastuak, berriz, gutxitzeko, administrazio publikoetako kontuak onbideratzea helburua duten prozesu batean, agregatu makroekonomikoen bilakaera baldintzatu baitute.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren eta zerbitzuen hazkunde positiboak azpimarratu behar dira. Aitzitik, lehen arloak eta eraikuntzak ekarpen negatiboa egin zioten EAEko barne produktu gordinaren hazkundeari. Lehen arloak %-2,8ko tasa izan zuen 2010eko batez bestean, aurreko urtean jasotakoa baino emaitza okerragoa delarik. Industriari dagokionez, urteko hazkunde tasa %0,4 izan zen eta susperraldi handiena lortu zuen arloa izan zen, ekonomia krisiak gogorren kaltetu zuen sektorea zelako. Kanpo eskariaren gorakadak EAEko industria jardueraren suspertzea eragin zuen, nahiz eta oraindik oso maila apaletan gauzatu zen. Eraikuntzari dagokionez, 2010ean izan zuen aldakuntza tasak, %-5,9 batek, garbi adierazten zuen higiezinaren arloko doikuntzak bide luzea zeukala aurretik egiteko eta obra publikoak ez zeukala behar beste indarririk etxegintzaren narriadura garrantzitsua konpentsatzeko. Azkenik, zerbitzuek lortu zuten hazkunde tasarik gorena 2010. urtean. Bizitasun hori bi ataletan hauteman zen, hala merkaturako zerbitzuetan nola merkaturatzen ez direnetan. Batez beste, hirugarren sektorea %0,8 hazi zen.

2010eko urteko txostena

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Lehen arloa	3,6	-2,8	-9,6	-1,2	14,6	-1,6
Industria	-12,7	0,4	-7,1	-3,5	-6,0	4,0
Eraikuntza	-3,6	-5,9	-6,7	-5,8	3,3	-0,1
Zerbitzuak	-0,2	0,8	-1,3	0,9	1,1	-0,1
Guztira	-4,0	0,1	-3,4	-0,8	-0,6	0,9

Iturria: Eustat.

Lehen arloa

Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen arloaren balio erantsi gordinak %2,8ko beherakada izan zuen, bolumeneko terminoetan, 2010. urtean. Unean uneko eurotan, berriz, hazkundea %0,9ra iritsi zen, prezioen igoera %4,0aren ingurukoa izan zen bitartean.

Nekazaritzaren barnean, ekoizpen fisikoen bilakaerak erakutsi zuen ardo ekoizpenaren hazkundea aurreko urtekoaren antzekoa izan zela, barazkiena zertxobait gutxitu zela, zerealena suspertu zela eta arlo horretako gainontzekoak zertxobait hazi zirela. Prezioei dagokienez, gehikuntza garrantzitsuak gertatu ziren zerealean eta piper berdeetan, merkaturatzen den ardoan eta frutetan prezioak oso behera egin zuen bitartean.

Abeltzaintzari dagokionez, azken ekoizpenaren balioak behera egin zuen 2010ean aurreko urtearekin alderatuta. Jaitsiera horren atzean, ekoizpenaren eta prezioen beherakada dago. Ahuntz kopuruan izan ezik, gainontzekoetan berriro gutxitu da animalien errolda. Ekoizpen beherakada garrantzitsuena txerrikian eta behi esnean gertatu ziren.

Beste aldetik, basogintzak mozketarako baimenen susperraldia ezagutu zuen 2010ean. Prezioek nabarmen egin zuten behera eta jarraipena eman diote 2001ean hasi zen maila apaleko joera historikoari. Jaitsiera behinena intsinis pinuaren salneurrian gertatu zen, eukaliptoarena aldaketa handirik gabe mantendu zen bitartean.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Nekazaritza eta arrantza	-6,1	3,6	-2,8	-11,1	-16,3	0,9

Iturria: Eustat.

Industria

2010. urtean, EAEko industriaren balio erantsiak %0,4ko urte arteko hazkunde txikia jaso zuen. Hala eta guztiz ere, tasa horrek agerian uzten du sektoreak suspertzeko joera hartua zuela aurreko urteko egoerarekin alderatuta. Garatutako ekonomia gehienetan jaso ziren industriako datuek baieztatzen dute hobetzeko joera hori 2010. urtean. EAEko industriaren gorakada eragin zuen faktorea esportazioen bizitasuna izan zen, nazioarteko ingurunearen bilakaera onak lagunduta. Beste aldetik, EAEko barne eskariak sendotasuneko zantzurik erakutsi gabe jarraitu zuen eta ez zuen lagundu industriaren bizkortze arinean.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
EB-27	3,1	1,2	3,5	3,1	-1,8	-12,2	4,3
Eurogunea	2,8	1,3	3,7	3,2	-2,2	-13,3	5,7
Alemania	4,7	1,4	5,8	3,8	-3,4	-16,7	10,1
Frantzia	1,1	1,4	0,0	1,8	-2,0	-10,3	---
Erresuma Batua	1,1	-1,3	0,0	0,1	-3,1	-10,1	2,0
Italia	0,9	-0,2	3,1	1,9	-3,4	-15,6	4,8
Espainia	0,9	1,1	1,8	0,8	-1,4	-12,4	1,3
EAE	2,9	4,9	4,2	3,1	-0,6	-12,7	0,4
AEB (*)	2,3	3,2	2,2	2,7	-3,7	-11,2	5,3
Japonia (*)	4,8	1,5	4,2	3,0	-3,3	-21,0	16,6


(*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat eta Eustat (EAE).


2010eko urteko txostena

Industria ekoizpenaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostaten eta Eustaten datuetan oinarrituta.

EAEko industriaren balio erantsiak 2010. urtean zehar izan zuen hiruhilabetekako seriea aztertzeke orduan, arlo horrek astiro baina etengabe hobetzen ari zela hautematen da. Bilakaera hori bera ikusten da Eustatek estimatzen duen industria produkzioaren indizean ere. IPIren aldakuntza datuak tasa negatibotan kokatu ziren urte hasieran eta bigarren hiruhilekotik aurrera agertu ziren urte arteko aldakuntza tasa positiboak, industria arloak suspertzeke joera txikia eta leuna hasita zeukala agerian utziz. Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen duen banaketaren arabera, eta bizkortzeke joera atal guztietan hauteman bazen ere, IPIren portaera ezberdina izan zen batzuetan eta besteetan, suspertzeke bizitasuna ezberdina zelako. Bitarteko ondasunen ekoizpena izan zen industriaren atal dinamikoena. Aitzitik, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak eta energiaren produkzioak aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten 2010eko batez bestean.

EAEko industriaren adarren bilakaera aztertzean, Eustatek 16 jarduera arloetarako argitaratu dituen datuek erakusten dute 2010. urtean adar guztiek ekoizpena areagotu zutela 2009ko emaitzekiko. Portaera onenak garraio materialean, metalurgian, produktu informatikoetan eta elektronikoetan, eta industria kimikoan lortu ziren. Beste atal batzuetan jarduerak atzera egin zuen, hala nola erauzketa industrietan, makineria eta ekipamenduan, eta altzariak eta bestelako manufacturatan. Izan ere, adar horiek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten urteko batez bestean, baina aurreko urteko jaitsiera leundu zuten.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-REN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2007	2008	2009	2010
BEG bolumeneko indizea	3,1	-0,6	-12,7	0,4
BEG uneko prezioetan	5,5	1,1	-16,5	1,2
Deflatoea	2,3	1,7	-4,4	0,8
Enplegua	1,8	-2,0	-7,1	-3,5
Ekoizkortasuna	1,3	1,4	-6,0	4,0
Industria produkzioaren indizea	3,8	-3,8	-20,5	1,8
Industria giroaren indizea	3,2	-11,1	-42,0	-20,3
Ekoizteke ahalmeneren erabilera	81,7	80,7	66,9	69,8


Iturria: Eustat.

2010eko urteko txostena


Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez osatzen duen inkestatik eratorritzen diren datuek agerian uzten dute industria arloko enpresariak baikorrakoak zirela etorkizunaz. Hala industria giroaren indizeak nola ekoizteko ahalmenaren erabileraz eratu duten adierazleak suspertzeko joera garbia marraztu zuten 2010. urtean zehar. Hala eta guztiz ere, balio horiek atzeraldiaren aurreko garaietakoak baino txikiagoak ziren oraindik.

EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eraikuntza

Eraikuntzak oso nabarmen areagotu zuen bere narriadura 2010. urtean eta %-5,9ko aldakuntza tasa jaso zuen EAEn urte horretan. Jarduera arlo hori kaltetzen ari den atzeraldi sakonak adierazten du doitzeko prozesua oso gogorra dela, astiro gertatzen ari dela eta oraindik asko falta dela amaitzeko. Dagoeneko hiru urte pilatu ditu hazkunde tasa negatiboak jasoz eta 2010. urtea izan zen hiruretako okerrena.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
BEG bolumen indizea	11,3	-5,8	-3,6	-5,9
BEG uneko prezioak	17,7	-2,2	-6,8	-5,4
Deflatoea	5,8	3,8	-3,3	0,5
Enplegua	5,3	-5,0	-6,7	-5,8
Ekoizkortasuna	5,7	-0,8	3,3	-0,1
Etxebizitzaren salerosketak	-12,5	-25,6	-19,4	25,4
Prezioa €/m ²	5,6	2,1	-7,1	-4,4
Hasitako etxebizitzak	15,4	-20,8	-50,1	9,2
Amaitutako etxebizitzak	5,5	-8,7	-4,5	-15,3
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	4,7	-35,0	-24,6	-1,4

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila, Etxebizitza Ministerioa eta Jabetza Erregistratzaileen Elkargoa.

Eraikuntzaren koiunturako adierazleek ere erakutsi zuten jarduera adar horrek 2010. urtean beherakadari jarraipena eman ziola. Beste urtebete batez, etxegintzaren merkatuko eskariaren eta eskaintzaren arteko desorekak saldu gabeko bizitegi berrien kopuru altu bat eragin zuen, baina kopuru metatua 2009koa baino zertxobait txikiagoa izan zitekeen. Beste aldetik, Etxebizitza Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak amaitutako bizitegiez argitaratutako datuek beherakada nabarmena, %15,0aren ingurukoa, seinalatzen dute. Halaber, Jabetza Erregistratzaileen Elkargoak etxebizitzaren salerosketez argitaratzen duten informazioak adierazten du 2010. urtean inflexio gunea gertatu zela aldagai horretan aurreko urteetako jaitzierarekiko eta bizitegien salmentetan gorakada txiki bat hauteman zen. Bizitegien

2010eko urteko txostena

eskariaren igoera txiki hori etxebizitzaren prezioen zuzenketak lagundu zuen. Izan ere, EAEn, etxebizitzaren metro karratuaren prezioa, eurotan neurtuta, %4,4 jaitsi zen 2010. urtean.

Eraikuntza arloko lan merkatuaren egoerak ere sektore horren narriadura agerian uzten du. Jarduera adar horretan enplegua galtzen ari zela estatistika eta lan merkatuaren erregistro guztietan hautematen zen. Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoetan, esate baterako, enpleguaren aldakuntza tasa negatiboa %5,8ra iritsi zen, 2010. urtean eraikuntzan lanpostuen galera oso garrantzitsua izan zela adieraziz. Gizarte Segurantzako afiliazioari dagozkion datuek, berriz, panorama etsigarria erakutsi zuten eta jaitsiera erritmoa leuntzen ez duen joera bat islatzen du. Erregistro horren arabera, eraikuntzaren enplegu galera 2010ean %7,5era heldu zen.

Zerbitzuak

Zerbitzuek hazkunde tasa positiboa lortu zuten EAEn eta urte osorako emaitza %0,8an kokatu. Beraz, EAEn ekonomia-jarduera adar biziena izan zen eta aldakuntza tasa positiboak jasotzen lehena. Analisia taldeka egiten bada, begi bistakoa da sektore horretako bi multzoek, hala publikoak nola pribatuak, urte arteko aldakuntza tasa bera, %0,8an estimatu baita, lortu zutela.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
BEG bolumenen indize kateatua	4,1	3,3	-0,2	0,8
BEG uneko prezioak	8,0	6,5	8,5	1,3
Deflatorea	3,7	3,1	8,7	0,5
Enplegua	3,2	2,1	-1,3	0,9
Itxurazko ekoizkortasuna	0,9	1,2	1,1	-0,1
Barne merkataritzaren indizea	3,1	-4,6	-9,0	2,7
Bidaiarien gualdiak	2,6	-4,2	-1,3	12,6
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,89	1,88	1,88	1,88
Plazen betetze maila (ehunekoa)	46,94	44,57	41,66	43,97

Iturria: Eustat.

Merkatura zuzentzen diren zerbitzuek lortu zuten bizkortze neurritsua arlo horretarako dauden adierazle ekonomiko guztiek 2010. urtean izan zuten joeran islatuta geratu da. Salerosketei dagokionez, Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak hazkunde tasa positiboa jaso zuen salmenta orokorretan, handizkako merkataritzak markatu zuen bilakaera bikainari esker. Izan ere, handizkako salmentak, bereziki produktu erdilanduenak, oso bizkor hazi ziren 2010. urtean eta gainontzeko osagaien aldakuntza negatibo txikiak konpentsatu zituzten. Beste aldetik, txikizkako merkataritzaren barnean, aldakuntza tasa oso txikia izan zen, baina zeinu negatiboduna. Hala eta guztiz ere, txikizkako salmentetan ere hobekuntzarako joera hauteman zen, batez ere elikagaietan eta pertsonarentzako ekipamenduan, multzoaren salbuespena izan baitziren eta tasa positiboak lortzen hasi baitziren. Dena dela, merkataritzako arloan lanpostuak galdu ziren, handizkako merkataritzan, hain zuzen ere.

EAEko turismoari dagokionez, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak suspertzeko zantzu garrantzitsuak erakutsi zituen turismoaren jardueran 2010. urtean. Izan ere, gaualdiak, bidaiarien etorrera eta hoteletako kopurua bezalako aldagaiek inoizko baliorik gorenak izan zituzten beren bilakaeran. Hori horrela izanda, hotel establezimenduetara sartu ziren turisten kopurua 2.238.699 bidaiarikoa izan zen 2010. urte osorako. Beste aldetik, turisten batez besteko egonaldiak aurreko urteetako balio berean jarraitu zuen, hots, 1,88 egunetan. Beste adierazle batzuek ere suspertzeko joera hartu zuten, hala nola establezimenduen betetze maila plazaka, %43,97an kokatu baitzen. 2010. urtean zehar, EAEko hotel establezimenduen kopuruak gora egin zuen eta inoizko mailarik gorena lortu zuen. Horren ondorioz, hiru lurralde historikoetan eskaintzen ziren plazen kopurua nabarmen areagotu zen.

Turisten jatorriari dagokionez, bidaiarien sarreren gorakada handia bai Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorri ziren pertsonen kopuruan (%9,7) bai atzerritik iritsitako bisitarien kopuruan (%18,7), bereziki azken hauetan, hauteman zen. Estatuko bisitarien artean, igoera orokorra izan zen autonomia erkidego guztietan, baina nabarmendu behar dira Aragoitik, Asturiasetik, Valentziatik, Madriletik eta Kataluniatik etorri zirenak, lurralde horietako hazkundera garrantzitsuagoa izan zelako. Atzerriko bisitarien artean ere jatorri garrantzitsuenetan hauteman zen gehikuntza, Alemaniako, Erresuma Batuko, Frantziako eta Amerika Latinoko turisten hazkundera azpimarratu behar delarik. Aurreko urteetan bezala, bidaiarien helburu nagusia, jatorria edozein izanda ere, EAEko hiriburuak izan ziren. Hala eta guztiz ere, 2010ean oso nabarmen areagotu ziren kostaldea eta barnealdea bisitatu zutenen kopurua. Nabarmenezkoa da atzerriko bisitarien gehikuntza kostaldeko herrietan. Suspertzeko joera bera erakusten dute Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek ostalaritzaren

2010eko urteko txostena

atalean. 2010. urtean, ostalaritzako afiliazioak hazkunde positiboa izan zuen hilabete guztietan eta %3,2ko gehikuntza tasa lortu zuen urte osorako batez bestean. Huraxe izan zen tasa gorenetakoa bat, osasun arloa eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen adarraren igoerak bakarrik gaitututa.

Garraioari dagokionez, Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak autonomia erkidegoko aireportuetako trafikoaz eskaintzen dituen datuek islatzen dute bidaiarien mugimenduak, bai estatu mailan bai nazioarteko bidaietan, gorakada bizia izan zuela 2010. urtean zehar. Charter motakoa diren eta Europar Batasuna jatorria zein helburua duten hegaldiak hazkunde bizia ezagutu zuten. Salgaien eta postaren garraioa ere areagotu zen 2010. urtean EAEko aireportuetan; hazkunde hori Forondan bakarrik gauzatu zen, garraio mota horretan autonomia erkidegoko garrantzitsuena baita. Beste garraiobideez dagoen informazioa aztertuta, bizitasun arineko zantzuak ere agertu ziren azpi-arlo horretan. Hain zuzen ere, 2010ean Euskotren erabili zuten bidaiarien kopuruan gorakada bat hauteman zen, Gasteizko eta Bilboko tranbietako lerroei esker, azpiegitura horrek garraio sarean irabazi duen garrantzia, bereziki erkidegoko hiriburuan, agerian uzten duela. Garrantzia bera bereganatu du Bilboko metroak Bizkaian. Garraiobide horretarako dauden datuek iradokitzen dute 2010. urtean bidaiarien kopurua %1,7 hazi zela, bereziki Ezkerraldeko herrietan izan duen arrakastaren ondorioei esker.

Salmentarako ez diren eta arlo publikoak eskaintzen dituen zerbitzuek %0,8ko urte arteko tasa lortu zuten 2010. urtean. Tasa horrek moteltzeko joera nabarmena erakusten du aurreko urtean izandako emaitzaren aldean, bi puntu eta erdi baino zertxobait gehiago murriztu baita hazkundea. Administrazio publikoek aurrekontuen desorekak zuzentzeko hartu zituzten neurriek emandako zerbitzuen apaltzea ekarri zuten eta atzean utzi zuten aurreko urtean erakutsi zuten portaera hedakorra eta zikloaren aurkakoa.

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
Zerbitzuak guztira	4,1	3,3	-0,2	0,8
Merkatuko zerbitzuak	3,9	2,5	-1,0	0,8
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	4,8	6,9	3,4	0,8

Iturria: Eustat.


Eskaria

Sarrera


Barne produktu gordinak 2010ean izan zuen osakerari dagokionez, adierazi behar da barne eskariak nabarmen murriztu zuela hazkunderari egin zion ekarpen negatiboa urte horretan, eta zortzi hamarren bakarrik kendu zizkiola, 2009an sei puntu baino gehiago kendu zizkion bitartean. Kontsumo pribatua eta kapital finkoaren eraketa gordina izan ziren EAEko barne eskariaren jaitsiera leuntzen lagundu zuten agregatu makroekonomikoak. Hala eta guztiz ere, eraikuntza alorreko kapital eraketa gordinak modu esanguratsuan jaisten jarraitu zuen, eta kontsumo publikoak, 2009an barne eskaria sustatu zuen osagai bakarra izan baitzen, nabarmen leundu zuen bere hazkunde erritmoa, defizit publikoa murrizteko onartu ziren herstura fiskaleko neurriengatik. Kanpo eskariak, berriz, hazkunderari egin zion ekarpena gutxitu zuen eta ehuneko puntu bat ekarri zuen, 2009. urtean bi puntu baino gehiago ekarri zituen bitartean. Dena dela, EAEko ekonomiak 2010. urtean hasi zuen suspertzeko joera kanpo arloak bultzatu zuen.

Barne eskariaren osagaien hazkundera

Barneko azken kontsumoa



Kapitaleko eraketa gordina




Iturria: Eustat.


2010eko urteko txostena

Eskarien ekarpenak BPGri

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Gastua azken kontsumoan

Barne eskarian pisu handiena duen arloa, hots, azken kontsumoan eginiko gastua, %0,9 hazi zen 2010. urtean. Ekonomiaren susperraldiaren hasierak nabarmen murriztu zuen gastu pribatuaren eta publikoaren arteko hazkunde diferentzia. Hori horrela izanda, administrazio publikoetako gastuak %1,3ko tasa jaso zuen 2010. urtean, aurreko urtean %3,7 hazi zen bitartean, zikloaren aurkako joera batean. Aitzitik, familien kontsumoaren gehikuntza tasa %0,8ra iritsi zen.

Kontsumo mailen susperraldia kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntza esanguratsuan oinarritu zen. Hain zuzen ere, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak egiten duen EAEko kontsumitzailearen konfiantza indizeak 83,3ko balioa lortu zuen 2010. urteko batez bestean, aurreko urtean jasotako 75,6arekiko hobekuntza garrantzitsua delarik. EAEko kontsumitzaileen igurikimene hobekuntza ekonomia orokorraz, familiako ekonomiaz eta lan merkatuaren egoeraz zituzten iritzi baikorragoetan oinarritu zen. Ezkertasuna gainditzeko testuinguru horretan, inbertsio handiak egiteko probabilitatearen indizeak modu neurrisuan suspertu zen. Espainiako Bankuaren datuen arabera, finantza erakundeek emandako banku

kredituak areagotu ziren 2010ean aurreko urteko kopuruaren aldean, baina oraindik krisiaren aurrean zeuden hazkunde tasetatik oso urrun daude.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010
Soldatapekoen ordainketa	6,7	7,1	5,8	-4,2	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	4,7	4,2	4,8	2,6	1,9
Enplegua	2,2	2,8	0,3	-3,4	-0,8
Pentsioen kopurua (*)	3,4	1,6	1,6	1,7	1,5
Batez besteko pentsioa (*)	4,4	4,6	6,6	4,5	2,9
PFEZren diru bilketa	10,3	13,6	4,5	-12,1	3,8
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)**)	3,4	4,4	4,8	1,6	1,4
KPI	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan eta Immigrazio Ministerioaren, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010
Kontsumo pribatua (bolumeneko indizea)	3,7	3,6	0,6	-3,7	0,8
Kontsumo publikoa (bolumeneko indizea)	4,3	6,4	7,0	3,7	1,3
IPI kontsumo ondasunak. EAE	1,6	0,5	-7,1	-12,0	1,6
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	2,5	1,7	-4,9	-8,2	0,8
Automobilen matrikulazioa	-2,8	-0,1	-22,6	1,7	-8,8
Barne merkataritzaren indizea (prezio finakoak)	4,9	3,1	-4,6	-9,0	2,7
Txikizkako merkataritza (prezio finakoak)	1,2	1,8	-2,8	-3,7	-0,6

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Beste aldetik, txikizkako merkataritzaren indizeak hobekuntza zeinuak erakutsi zituen 2010ean eta bere bilakaeraren joerak 2009an izandako beherakada leuntzen ari zela islatu zuen

2010eko urteko txostena

hazkunde tasa positiboetara hurbiltzeko. Turismoen matrikulazioei dagokienez, %8,8ko jaitsiera izan zuten 2010ean, gobernuak 2009an ezarri zituen neurrien ondorioz, urte horretako salmentak oso nabarmen igoarazi zituztelako.

Kapital eraketa gordina

Barne eskariaren beste osagaiak ere, hots, kapitaleko eraketa gordinak, beherakada garrantzitsua ezagutu zuen 2010ean. Urte arteko hazkunde tasa %-6,0an kokatu zen. Tasa hori oso negatiboa da, baina hiruhilabetekako bilakaeran leuntzeko joera garbia markatu zuen. Kontuan hartu behar da 2009an batez besteko aldakuntza %-15,4 izan zela, agregatu makroekonomiko horrek inoiz izan duen baliorik txikiena baita.

Suspertzeko joera hori islatuta geratu zen EAeko inbertsioa aztertzeko argitaratu diren adierazleetan. Esate baterako, industria produkzioaren indizeak, ekipamendurako ondasunen atalean, gorakada sendoa izan zuen eta hazkunde tasa positiboak lortu zituen garraio materialaren osagaian 2010. urtean. Orobat, ekipamendurako ondasunen inportazioek bilakaera positiboa erakutsi zuten, urte arteko tasan %11,2 areagotu zirelako 2010eko batez bestean. Beste aldagai batzuk gutxiago hazi ziren, hala nola zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa %0,8 areagotu zen, baina aurrerapen garrantzitsu bat izan zen 2008an eta 2009an jasotako emaitzen aldean.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	5,9	4,6	-2,2	-15,4	-6,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	8,5	7,2	-2,5	-25,0	-1,3
- IPI garraio materiala	8,3	8,4	1,6	-17,8	7,6
- IPI makineria	5,6	5,7	-5,7	-28,8	-4,2
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	6,1	14,5	-2,2	-34,8	11,2
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-5,4	5,4	-41,2	-39,6	0,8

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Inbertsioaren alorrean, 2010. urtean enpresarien igurikimenak zertxobait hobetu ziren, baina oraindik zalantza handiak zituzten ekonomia krisiaren bilakaeraz. Beldur horiek inbertsio egitasmo berriak atzerarazi zituzten eta, horren ondorioz, lan merkatuaren susperraldia ere. EAEko enpresek konfiantza handiagoa zeukaten kanpo merkatuetan barneko eskariaren bilakaeran baino.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Munduko ekonomia 2008ko amaieran astindu zuen ekonomia eta finantza krisiak atzeraldi bizia eragin zuen mundu osoan 2009an, nazioarteko merkataritzan azken hirurogeita hamar urteko beherakadarik handiena ekarriz. Izan ere, salgaien trukearen hondoratzea hain larria izan zen, ezen herrialdeen arteko merkataritza %12,2 egin baitzuen behera, aurrekaririk gabeko ehuneko bat delarik. Konfiantzaren hobekuntzak eta munduko ekonomiaren egonkortzeak merkataritzaren susperraldia ekarri zuten eta 2010ean %14,5 hazi zen, 1950ean datuak biltzen hasi zenetik inoiz jaso den tasarik gorena baita.


Ekonomia jardueraren susperraldian abiadura ezberdinak bizi diren bezala, esportazioen gorakadan ere bizitasun ezberdina hauteman zen eremu bakoitzean. Eremu ekonomiko guztiek salmentetan maila positiboak jaso bazituzten ere, esportazioen hazkundera ekonomia garatuetan (%12,9) garapen bidean dauden herrialdeetan (%16,7) baino gutxiago hazi zen. Europako ekonomia nagusien artean, Alemaniako salmenten gehikuntza tasa nabarmendu behar da, %20aren inguruko hazkundera tasa bat lortu zuelako. Herrialde horren atzean, Erresuma Batuen eta Frantziaren esportazioak nabarmendu ziren, bi zenbakiko igoerak lortu zirelako bietan. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen gainontzeko eremuan, bilakaera are biziagoa izan zen. Txinako barne eskariaren sendotasunak Japoniako salmentak gorarazi zituen, azken hamabost urteko igoerarik gorena lortu baitzuten. Orobat, AEBetako esportazioak %20tik gora hazi ziren.

Hala eta guztiz ere, ibilbide azpimarragarriena garapen bidean dauden herrialdeek erakutsi zuten, salmenten gehikuntza tasa handienak lortu ez ezik –Txinaren eta Indiaren esportazioak %30 baino gehiago hazi ziren- nazioarteko merkataritzaren guztizkoan duten parte hartzea modu garrantzitsu batean areagotzea ere lortu zutelako. Hain zuzen ere, lau hamarkadako epe laburrean, Txina munduko esportazio guztien %0,8 biltzetik 2010ean %10 baino gehiago saltzera igaro da. Inportazioen atalean, antzeko bilakaera izan du, zeren eta hirurogeita

2010eko urteko txostena

hamarretako hasieran inportazioak %0,9 baziren, 2010ean nazioarte mailan egin ziren erosketak guztien %9,1era iritsi baitziren. Hazkunde harrigarri horiek nazioarteko BPG eta merkataritza areagotu zituzten eta, aldi berean, Txina herrialde esportatzaile nagusia eta bigarren potentzia inportatzailea bihurtu zuten.

Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia ez zegoen testuinguru horretatik aparte. Hala esportazioak nola inportazioak bizkor hazi ziren modu orokor batean, merkataritzako bazkide

nagusien ekonomiek erritmo biziagoa lortu zutelako eta EAEko barne eskariaren bilakaera areagotu zelako. Hain zuzen ere, EAEko esportazioak %20,1 hazi ziren 2010. urtean eta 17.500 milioi euroko langa gainditu zuten. Salmenten gorakada horrek hazkunde sendo bat ekarri zuen 2009ko beherakadaren ondoren eta azken hamar urteko emaitza guztiak gainditu zituen. Inportazioen hazkunde tasak are biziagoak izan ziren eta 63 puntu hobetu zuten, %24,3 hazi arte. Beraz, eta kontuan hartuta salmenten balioa erosketena baino gehiago izan zela, EAEko merkataritzaren superabita 2.288 milioi eurora iritsi zen. Saldo hori hamarkada osoan lortutako gorenetakoa da, baina, harrigarria bada ere, 2009koa baino txikiagoa da. Energiatz bestelako merkataritzaren bilakaera antzekoa izan zen eta bi osagaietan lortutako gehikuntzak parekoak izan ziren. Alde handiena merkataritzako saldoaren eskutik iritsi zen, energiakoak ez diren ekoizkinen kasuan sei mila milioi euroko zenbatekoa gainditu zuelako.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2005	2006	2007	2008	2009	2010(*)	Milioi € 2010 (*)
Esportazioak							
Guztira	5,8	16,4	14,6	6,3	-26,3	20,1	17.545,9
Ez-energetikoak	5,4	14,1	14,7	4,9	-25,9	19,9	16.025,7
Energetikoak	12,2	51,4	12,5	22,6	-30,5	23,0	1.520,2
Inportazioak							
Guztira	15,6	20,2	8,2	6,4	-38,9	24,3	15.257,2
Ez-energetikoak	4,4	14,6	14,1	-0,8	-38,2	23,1	9.947,2
Energetikoak	52,1	32,9	-3,2	22,9	-40,1	26,5	5.310,0
Saldoa							
Guztira (milioi €)	-240,0	-830,7	170,1	161,4	2.650,9	2.288,7	2.288,7
Ez-energetikoak (milioi €)	3.375,9	3.810,3	4.452,4	5.429,1	5.628,9	6.078,5	6.078,5

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Hala eta guztiz ere, eta hauteman zen bizitasuna handia izan arren, 2010eko erosketen eta salmenten kopuruak ez ziren krisiaren aurrekoak (2008koak) baino handiagoak izan. Egoera hori atal guztietan eta ia helburu guztietan egiaztatzen da, salbuespena ELGETik kanpo dauden merkatu berriak direlarik.

2010eko urteko txostena


Araba, Bizkai eta Gipuzkoako enpresek merkataritzaren alorrean dituzten bazkide nagusien ekonomia suspertu izanak eta oinarrizko produktuen prezioen gehikuntzak eragin zuzena izan zuten EAEko esportazioek 2010. urtean izan zuten hazkundera. Arantzel sekziok, atal guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten. Horrelakorik lau urtetan bakarrik (1996, 1997, 2000 eta 2006an) gertatua zen azken hogei urtean. Zehazkiago, bizitasun handiena produktu kimikoei (%37,0) eta metal arruntak eta beren manufakturei egokitu zitzaizen (%37,0), burdinaren, altzairuaren eta aluminioaren manufakturak bultzatuta ia %32 areagotu baitzituzten beren salmentak. Ekipamendurako ondasunak ere, metal arruntekin batera salmenten bilakaera neurri handi batean baldintzatzen duen beste atala baita, gero eta gehiago hazi ziren, baina bizitasun gutxiagorekin. Izan ere, atzerrira bideratu ziren ekipamendurako ondasunen esportazioak %13,9 hazi ziren, bereziki 2010eko hasieran saldu ziren bi itsasontziri eta automobilen salmentaren gorakadari esker.

Beste aldetik, EAEko barne eskariaren bizitasun handiagoak inportazioak areagotu zituen ia ondasun talde guztietan. Berezi nabarmendu zen metal arruntak eta beren manufakturen gehikuntza, 2010. urtean 3.400 milioi euroak gainditu zituztelako eta aurreko urteko emaitza %45,2 gainditu zuelako. Energiako ekoizkinek EAEko inportazioak lideratu zituzten eta hazkunde tasa sendo bat eskuratu zuten, neurri handi batean, prezioen gehikuntzaren ondorioz. Garraio materialak bakarrik gutxitu zituen inportazioak, baina beherakada oso nabarmen murriztu zen. Jaitsiera hori gertatu zen arren, makinak eta tresnak delako atalak erakutsi zuen sendotasunak bide eman zuen ekipamendurako ondasunen erosketa %4,7 hazteko, azken zazpi urteko batez bestea gaindituz.


Geografia eremuen arabera, energiakoak ez diren EAEko esportazioak merkatu guztietan areagotu ziren. Europa izan zen berriro energiaz bestelako salmenten helburu nagusia, baina tokia uzten ari da ELGEkoak ez diren herrialdeen bizitasunaren aurrean. Hain zuzen ere, hamarkada bakar batean, Europar Batasunak EAEko salmenten %74 erostetik 2010ean %64 bereganatzera igaro da. Aitzitik, ELGEkoak ez diren herrialdeen kuota ehuneko berean igo da (%16,0tik %26,6ra igaro da beren kuota). Hala eta guztiz ere, Frantziaren eta Alemaniaren barne eskarien sendotasunak lagundu zuen herrialde horiek salmenta ez-energetiko guztien %32 bereganatzen, eta eremu osora bideratutako esportazioen gehikuntza tasa 1997tik inoizko handiena izaten.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekoizkin energetikoen esportazioak




Ekoizkin energetikoen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta manuflakturen esportazioak



Metal arrunten eta manuflakturen inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

2010eko urteko txostena

ELGEko gainontzeko eremuan ere, aurrerapenak adierazgarriak izan ziren, baina nolabaiteko zuhurtasuna eduki behar da beraiek aztertzeko orduan. Japonian (%44,6) edo AEBetan (%15,0) energiaz bestelako salmentek hazkunde garrantzitsua lortu zuten arren, merkatu horietan azken hamalau urtean bizi izan diren gorabehera etengabeek merkatu kuota berreskuratu dela ziurtatzea eragozten dute. ELGETik kanpo, Europar Batasunean bizi zen ezegonkortasunak salmentak merkatu egonkorragoetara eta iraunkorragoetara bideratzea ekarri zuen. Erabaki horren ondorioz, Txinan eta Indian saldutakoa %50 baino gehiago hazi zen.

ENERGIAZ BESTELAKO MERKATARITZA HARREMANAK EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEAN

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi € 2010 (*)
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	
Esportazioak							
ELGE	5,6	14,6	10,2	3,3	-30,0	18,6	11.767,6
Europako kide berriak	22,4	26,3	28,7	7,9	-30,5	17,1	789,8
Europar Batasuna 27	5,6	15,8	11,0	3,3	-32,5	20,7	10.284,2
Alemania	-0,8	23,5	15,6	3,6	-32,4	20,3	2.418,1
Frantzia	3,7	10,4	6,4	3,9	-29,6	18,9	2.728,9
Erresuma Batua	0,9	3,4	9,6	1,2	-36,4	28,7	966,5
Italia	23,5	24,8	-1,5	-4,2	-36,6	32,4	1.084,6
Errusia	-0,3	54,9	44,2	50,4	-47,1	51,1	165,3
Txina	17,7	28,1	20,6	33,6	-35,1	54,1	399,7
Inportazioak							
ELGE	2,2	11,4	13,6	-2,5	-35,0	19,1	7.488,3
Europako kide berriak	24,8	20,7	14,8	9,2	-26,3	32,3	388,9
Europar Batasuna 27	2,7	10,9	12,0	-3,1	-35,8	21,0	6.709,1
Alemania	2,2	3,3	35,9	-2,5	-43,6	9,9	1.623,6
Frantzia	-4,4	14,9	8,6	1,3	-36,3	27,3	1.514,0
Erresuma Batua	-1,8	2,6	-14,3	-20,7	-43,9	71,2	579,7
Italia	6,0	9,6	13,1	-4,8	-28,2	-5,5	827,9
Errusia	-3,4	17,5	6,9	5,5	-63,2	62,3	285,9
Txina	33,9	38,1	45,7	-2,3	-36,3	23,4	874,8

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Barne eskariaren hobekuntzak, batez ere kontsumo pribatuari eta ekipamenduko ondasunetan eginiko inbertsioaren nolabaiteko susperraldiari lotuta dagoenak, energiaz bestelako inportazioa %23,1 gorarazi zuen, 1995etik inoizko tasarik handiena dena eta azken hogeituro urteko batez bestea (%11,5) baino askoz ere altuagoa dena. Europar Batasuna izan zen EAEko merkatuaren hornitzaile nagusia, inportatutako guztiaren %67,4 hortik ekarri baitzen. Testuinguru horretan, Frantziatik eta, bereziki, Erresuma Batutik, herrialde horrek izan baitzuen hazkunderik handiena energiaz bestelako inportazioetan, ekarritako metal arruntak eta beren manufakturen inportazioak gailendu ziren.

ELGEko gainontzeko herrialdeetan, joera positiboa hauteman zen, baina apalagoa. Japonian erositako material elektrikoa nabarmendu zen, energiaz bestelako salmentak %5,7 igotzea ahalbidetu zuelako, 2008an eta 2009an, hurrenez hurren, %1,2 eta %30,4 jaitsi ondoren. ELGETik kanpo, 2008-2009 biurtekoan bizi zen beherakada atzean utzita, energiaz bestelako inportazioak oso bizkor areagotu ziren berriro.

Lan merkatua


2009ko enplegu galera larriaren ondoren, EAEko lan merkatuak bilakaera hobea izan zuen 2010. urtean zehar, eta berriro lanpostuak galdu bazituen ere, jaitsiera aurreko urtekoa baino nabarmen apalagoa izan zen, ekoizpen jarduera suspertzen ari zen heinean. Lanpostuak galdu baziren ere, ez zen lan merkatua uzteko joerarik hauteman eta biztanleria parte hartzailea igo zen aurreko urteko kopuruaren aldean. Beraz, lanik gabeko pertsonen kopuruak berriro egin zuen gora eta langabezia tasa puntu oso bat gehitu zen %9,2an kokatu arte. Zenbateko hori Europar Batasuneko batez bestearena baino zertxobait txikiagoa zen.

Lan merkatua aztertzeke erabiltzen diren estatistika guztiek antzeko bilakaera erakutsi zuten 2010. urtean, zeren eta guztiek adierazi baitzuten enpleguaren urte arteko aldakuntza tasa 2009koa baino hobea izan zela. Hain zuzen ere, landunen galera oso antzekoa izan zen Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuetan (%-1,0) eta Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoetan (%-0,8). BJA inkestak estimatu zuen zenbatekoa baikorragoa izan zen, urteko jaitsiera %-0,3ra mugatu zuelako. Enplegu murrizketa horretatik aldendu zen estatistika bakarra BAI inkesta izan zen, %0,7ko enplegu sorrera garbia erakutsi zuelako.


2010eko urteko txostena

Enpleguaren bilakaera EAEn Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI




Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzza eta INE.

Landunen jaitsiera erritmoaren leuntzea enplegu sorrera garbia bihurtu zen atzerritar afiliatuen kasuan. Izan ere, 2009. urtean balio negatiboak (%-3,0) eta bertoko biztanleriarena bezalakoak jaso ondoren, 2010ean balio positiboak (%2,2) jaso zituzten berriro eta beren pisu afiliazioaren guztizkoan areagotu zuten, pisu hori oraindik oso txikia (%5,6) den arren. Krisiari gogor astindu duen arlo batzuetan (hala nola eraikuntzan) atzerritar afiliatuak ugariak diren arren, hedatzeko bidean dauden beste jarduerak batzuetan ere lan egiten dute, esate baterako


ostalaritzan, etxeko jardueretan eta zaharren zaintzan. Lanbide horiek afiliatu atzerritarren kopurua areagotzeko balio izan zuten.

Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Ekonomiaren arloka, zerbitzuek bakarrik lortu zuten enplegua sortzea. Hain zuzen ere, industriak %3,5 murriztu zuen bere langileen kopurua, 2009an %7,1eko jaitsiera jaso ondoren. Beraz, sektore horretako ekoizpena suspertu zen heinean lanpostuen galera erritmoa leunduz joan zen. Dena dela, 2007-2010 epealdian 30.000 lanpostu baino zertxobait gehiago galdu ziren industrian. Eraikuntzaren bilakaera antzekoa izan zen eta 2010ean %5,8ko jaitsiera jaso zuen. Guztira, 16.600 lanpostu galdu ziren eraikuntzan hiru urte horietan. Lehen arloak, berriz, 2.000 lanpostu baino zerbait gehiago galdu zituen, jarduera horiek uzteko egiturazko prozesu batean.

Beraz, emaitza on bakarrak zerbitzuetan lortu ziren, beren jardueretako langileen kopurua %0,9 igo zelako, 2009an izan zuen %1,3ko jaitsieraren ondoren. Sektore horren barruan, eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, enplegu sorrera arlo publikoaren esparruko jardueratan hauteman zen, hala nola administrazio publikoaren afiliazioan (%1,7); baita eremu publikokoa zein pribatukoa diren beste jarduera batzuetan ere, esate baterako hezkuntzan (%2,3) eta osasuna eta gizarte zerbitzuetan (%4,4); eta, azkenik, arlo pribatukoak diren beste

2010eko urteko txostena

batzuetan ere, adibidez, ostalaritzan (%3,2), higiezin jardueretan (%2,1), jarduera artistikoetan (%1,8) eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (%1,3). Hala ere, jaitsiera nabarmenak ere hauteman ziren zerbitzu batzuetan, hala nola informazioa eta komunikazioetan (%-2,3), finantza eta aseguruetan (%-2,0), garraioetan (%-2,1) eta merkataritzan (%-0,8).

Ekoizpenaren susperraldiak eta enpleguaren galerak produktibitatea balio positiboetara (%1,1) itzularazi zuten, azken hamabost urtean batez besteko irabazia izan den balioarekin (%1,0) bat eginez. Emaidza horri esker, atzean geratu zen 2009ko jaitsiera (%-0,4). Ekoizkortasuna galtzea ezohikoa da eta ekoizpenaren jaitsieraren aurrean enpleguak atzerapenez erantzun izana da horren azalpena. Produktibitatea suspertu bada ere, zehaztu behar da industriak bakarrik lortu zituela balio positiboak (%4,0), zeren eta bai eraikuntzak bai zerbitzuek balio negatibo txikiak (%-0,1 bi arloetan) jaso baitzituzten. Beraz, hazkunde eredu batera itzuli da, zeinean eraginkortasuneko hobekuntzak, batez ere, industrian gauzatzen baitira, eraikuntzan eta zerbitzuetan ekoizkortasun irabaziaz askoz ere apalagoak diren bitartean.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak


	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Enplegua guztira:	2,2	2,2	2,8	0,3	-3,4	-0,8
Ekoizkortasuna guztira:	1,7	2,1	1,4	1,0	-0,4	1,1
- Enplegua lehen arloan	-5,1	-3,5	-4,2	0,0	-9,6	-1,2
- Ekoizkortasuna lehen arloan	-9,2	-0,9	4,4	-6,1	14,6	-1,6
- Enplegua industrian	-0,6	0,5	1,8	-2,0	-7,1	-3,5
- Ekoizkortasuna industrian	5,5	3,7	1,3	1,4	-6,0	4,0
- Enplegua eraikuntzan	3,7	3,4	5,3	-5,0	-6,7	-5,8
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	1,0	0,7	5,7	-0,8	3,3	-0,1
- Enplegua zerbitzuetan	3,5	3,1	3,2	2,1	-1,3	0,9
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	0,0	1,4	0,9	1,2	1,1	-0,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestak argitaratu zuen informazioaren arabera, enplegu galera gizonen biztanlerian gauzatu zen berriro (%-1,1), emakumeen enplegua, zerbitzuetara lotuago baitago, %0,8 hazi zen bitartean, nahiz eta urte hasiera txarra izan zen. Zehazkiago adierazita, 2009. urtean baino

3.200 emakume landun gehiago kontabilizatu ziren 2010ean, gizonen artean galdu ziren 5.800 lanpostuak, neurri batean, konpentsatuz. Kontu jakina da gizonek pisu handiagoa dutela eraikuntzan eta industrian, eta bi sektore horien bilakaera txarrak gehiago kaltetu zituela gizonen enplegua. Gizonez gain, gazteek ere oso nabarmen pairatu zuten krisiaren eragina eta %5,2 beheratu zuten beren landunen kopurua. 25 eta 44 urte bitarteko taldeak ere bilakaera negatiboa (%-1,9) erakutsi zuen. Aurreko guztiaren ondorioz, 20 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa %68,0an kokatu zen 2010ean, hots, Europako Batzordeak 2020. urterako ezarri duen helburutik zazpi puntura.

Soldatapeko landunen beherakada mugagabeko kontratua zutenen artean metatu zen, bere kopurua %2,4 gutxitu baitzen. Aitzitik, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen kopurua %8,0 areagotu zen. Beraz, 2003an hasi zen aldibaterakotasun tasa murrizteko joera galgatu da, tasa hori 2010ean puntu bat eta erdi igo baitzen, %20,2ra iritsi arte, Europar Batasunean jasotako balioa (%13,9) nabarmen gaituz.



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Lanaldiaren bilakaerak agerian utzi zuen jarduera suspertzen ari zela, zeren eta benetan lan egindako batez besteko ordu kopurua 2009koa baino handiagoa izan baitzen, lau urtez jarraian

2010eko urteko txostena

jaitsierak pilatu ondoren. Aparteko orduak ere gorakada garrantzitsua izan zuten, aurreko urtean bat-bateko beherakada nozitu eta gero. Hala eta guztiz ere, krisiaren aurreko urteetan egoten ziren kopuruetatik urrun geratu ziren oraindik. Aitzitik, lan egin ez ziren orduak gutxitu ziren eta hamarkadaren hasierako balioetara hurbildu ziren. Alde batetik, jai eta oporretarako denbora jaitsi zen, eta, beste aldetik, inoizkako arrazoiengatik, enplegua erregulatzeko dosierak barne hartzen baititu, lan egin ez ziren orduak ere gutxitu ziren, nahiz eta bere balioak nahiko altua izaten jarraitzen duen.

LANALDIAREN BILAKAERA

Urteko ordu kopurua


	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Batez besteko lanaldia langile bakoitzeko	1.581,9	1.559,7	1.538,2	1.534,0	1.506,3	1.520,7
Aparteko orduak (*)	2.774,8	2.618,7	2.938,0	3.138,3	1.999,9	2.336,9
Huts egindako orduak langile bakoitzeko	273,9	285,2	276,7	277,3	288,4	271,0
-Oporrak eta jaiegunak	204,0	211,4	197,2	203,2	194,8	186,2
-Bestelako arrazoiak	70,0	74,0	79,4	74,0	93,6	84,8

(*) Aparteko ordu guztiak mila ordutan neurtuta.
Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa.

Lan merkatuan parte hartzen duen biztanleriak gora egin zuen (%0,9) berriro 2010. urtean, emakumeen bultzadari esker (%1,7), lan merkatuan sartzeari ez baitzioten utzi. Emakumeek betetzen ohi dituzten lanpostuak zerbitzu alorretakoak izaten dira eta gutxiago pairatu zuten krisiaren eragina. Orobat, kasu askotan lana bilatzeari ekin zioten familiako beste kide batzuen enplegu galera konpentsatzeko. Adinez nagusiagoa den biztanleria aktiboak ere lagundu zuen parte hartzaileen kopurua gorarazten, zeren eta partaidetza tasaren gehikuntza talde horretan bakarrik gauzatu baitzen (2010. urtean %39,3ra iritsi zen, aurreko urtean tasa hori %38,1ean kokatu zen bitartean).

Hala eta guztiz ere, langabeen kopuruak, BJA inkestaren datuen arabera, gora egin zuen berriro eta hirugarren urtez jarraian gehikuntza tasa esanguratsuak (%13,9) jaso zituen. Hori horrela izanda ere, gogorazi behar da EAEko langabezia tasa (%9,2) Espainiakoa (%20,1) baino askoz ere txikiagoa izan zela eta Europako batez bestea (%9,6) baino zertxobait apalagoa zela. Langabeen artean, langabezi saria jasotzeko eskubidea zutenen ehunekoa

gutxituz joan zen urtean zehar, urtarrileko 90.000 lagun izatetik abenduko 83.000 izan arte, langabezian emandako denbora luzatu izanak kasu askotan ordainketa eskubide horiek agortzea ekarri zielako.



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Enplegua erregulatzeko dossierrek hobekuntza nabarmena aurkeztu zuten 2010. urtean, aurreko urtean 1993ko krisitik emaitzarik okerrera markatu ondoren. Hala ere, 2010ean baimendu ziren dossierren bolumena oso garrantzitsua izan zen oraindik, bereziki krisiaren aurreko balioekin alderatzen bada. Zehazkiago adierazita, 2010. urtean zehar 1.993 dossier jaso ziren, 35.426 langilerengan eragina izan zutenak, aurreko urtean 2.565 dossier aurkeztu ziren bitartean eta dossier horiek langile kopurua ia bikoiztu zuten, hain zuzen ere 68.722 langilerengan izan zuten eragina. Dena dela, adierazi behar da dossierren kopurua nabarmen gutxitu zen arren, kontratua bertan behera uzteko dossierrak zertxobait igo zirela eta 2.000 lagun baino gehiago kaltetu zutela. Bilakaera horrek pentsarazten du lehen unean enpresek jarduera denboraldi batez eteteke dossier bat aurkeztea nahiago dutela, baino gero, atzeraldia luzatzen ari zela ikustean, askori geratzen zaien aukera bakarra langileen kopurua murriztea izan zela. Halaber, deigarria da lanaldia murrizteko dossierren bilakaera, bai 2009an bai 2010ean gehiago erabili zirelako. Beste urtebete batez, industriak beste arloek baino dossier gehiago aurkeztu zituen.

2010eko urteko txostena

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Dosierren kopurua	328	173	282	496	2.565	1.993
Eragindako langileak	6.158	3.338	4.815	12.794	68.722	35.426
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	41	4	17	108	1.170	1.051
- Behin-behineko etetea	4.714	1.704	3.856	11.216	65.574	32.349
- Kontratua amaitzekoa	1.403	1.630	942	1.470	1.978	2.026

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, 2010ean 690.000 kontratu inguru jaso ziren eta %5,6ko gehikuntza izan zuten aurreko urteko kopuruaren aldean. Beraz, atzean geratu ziren 2008ko eta 2009ko jaitsierak. Halaber, lortu zen hazkunde tasa ziklo hedakorreko azken urteetakoak baino handiagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, kontratuen gehikuntzak adierazten du soldatapeko berrien baldintzek kalitate gutxiago dutela, zeren eta lanaldi osoko kontratu mugagabeak berriro gutxitu baitziren eta aldi baterako kontratuak eta lanaldi laburreko kontratuak izan baitziren gorakada hori eragin zutenak.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2010	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Guztira	688.717	1,9	3,1	4,1	-5,2	-17,8	5,6
Lanaldi osoko mugagabeak	16.318	3,6	9,4	31,3	-8,7	-32,0	-11,7
Obra edo zerbitzukoak	146.751	-3,6	-0,1	0,7	-11,4	-21,1	8,1
Abagunekoak	175.256	0,6	3,2	5,1	-9,4	-28,0	11,1
Lanaldi laburrekoak	234.500	8,4	2,9	3,3	-1,3	-9,7	4,8
Prestakuntzakoak (*)	5.224	-3,9	0,7	-4,2	-13,0	-37,7	8,1
Gainontzekoak	110.668	2,2	8,8	4,8	7,9	-6,6	-0,8

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoa (SEPE).

Prezioak, kostuak eta soldatak

Barne zein kanpo eskarien susperraldiko testuinguru batean, prezioek goranzko joera garbia erakutsi zuten 2010. urtean, bereziki urteko azken hilabeteetan. Salneurrien igoerak areagotzeko joera horren oinarrian, petrolioaren upelak nazioarteko merkatuetan izan zuen garestitzea eta Espainiako gobernuak onartu zituen beste igoera batzuk zeuden. Gobernuak onartutako igoeren artean, azpimarratzekoak dira BEZ zergaren tipoen igoera eta argindarraren eta tabakoaren garestitzeak.

Prezioen igoera hori BPGren deflatoean islatu zen, 2010. urtean %1,7 igo baitzen, aurreko urteko beherakadaren ondoren. Hala barneko prezioek nola kanpokoek parte hartu zuten susperraldi horretan, baina gehikuntza handiena esportazioen prezioek izan zuten, energiako salneurrien bilakaerak baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, deflatoearen 2010eko balioa krisiaren aurreko hamarkadan jaso ziren guztiena baino apalagoa izan zen. Beraz, ezin da esan prezioetan tentsiorik dagoenik.

DEFLATOREEN BILAKAERA

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
BPGren deflatoea	3,4	3,3	3,2	0,9	-1,2	1,7
Barne eskariaren deflatoea	3,6	3,8	2,9	2,2	0,4	1,4
Esportazioen deflatoea	2,1	3,8	3,5	4,5	-5,3	2,4
Inportazioen deflatoea	2,5	4,5	3,0	6,1	-2,3	1,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Kontsumo prezioek, berriz, oso apalak ziren hazkunde tasa batzuk (%0,9) jaso zituzten urte hasieran, baina hilabeteak aurrera zihoazen heinean eta ekonomiaren susperraldia finkatzen ari zen neurrian gehikuntza erritmoa areagotu zuten. Hori horrela izanda, abenduan KPI indizea dagoeneko %2,8an zegoen, 2009an jasotako emaitza puntu bat eta zortzi hamarrenetan gaudituz. Urteko batez bestean neurtuta, 2010eko KPI %1,7an kokatu zen, 2009an izandako %0,3 baino askoz ere gorago, baina Europako Banku Zentralak moneta politikarako ezarri zuen helburuaren (%2) azpitik.

2010eko urteko txostena

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2008	2009	2010	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7	1,7
Azpiko inflazioa (%83,9)	2,9	2,8	3,2	1,1	0,7	0,6
KPI Landutako elikagaiak (%13,3)	3,6	4,0	6,6	1,2	0,7	0,1
KPI Industriako ondasunak (%28,9)	1,4	0,7	0,6	-0,9	-0,2	-0,1
KPI Zerbitzuak (%41,7)	3,7	3,9	3,9	2,5	1,4	0,6
Hondarreko inflazioa (%16,1)	6,1	3,0	8,5	-3,6	6,6	1,1
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,9)	4,3	4,2	5,0	0,2	0,2	0,0
KPI Energia (%9,2)	7,9	1,9	11,6	-7,3	11,5	1,1

Iturria: INE.

Salneurrien goranzko joera hori batez ere petrolio upelaren garestitzeak eragin zuen, urte amaieran 90 dolarreko langa gaintu zuelako, 2009. urtean bere prezioa 75 dolarren azpian zegoen bitartean. Faktore horri erantsi behar zaio, alde batetik, zergen igoera bat, 2010eko uztailean BEZ zergaren tipoak igo zirelako, tipo murriztua %7tik %8ra eta tipo orokorra %16tik %18ra. Beste aldetik, Espainiako gobernuak arautzen dituen hainbat prezio igotzea erabaki zuen, hala nola argindarrarena eta gasarena, administrazioaren diru sarrerak areagotzeko eta defizit publikoa murrizteko. Asmo berarekin erabaki zuen tabakoaren lanen gaineko zergak igotzea.

Indize orokorra osatzen duten talde berezi guztiek prezioen hazkundera bizkortzeko joera erakutsi zuten 2010. urtean zehar, baina industriako ondasunen gorakada nabarmendu zen, urte arteko tasan hiru puntuz igo zelako, urtarrileko %1,3tik abenduko %4,3ra bitartean. Igoera horren zati bat energiako ekoizkinen parte hartzeak azaltzen du, baina industriako ondasun iraunkorrek ere goranzko joera garrantzitsua erakutsi zuten, urte hasierako %-2,8tik abenduko %1,5era bitartean. Hala eta guztiz ere, zenbateko neurritsuetan jarraitu zuen, automobilen salneurria jaitsi zelako, beraiek erosteko diru laguntza publikoengatik eta kontzesionarioek emandako deskontuengatik.

Urteko batez bestean, gainontzeko talde bereziek bilakaera neurritsua eskaini zuten eta, esate baterako, landutako elikagaiak %0,7ko gehikuntza izan zuten urte osorako, elikagai freskoak urte osoan bi hamarren bakarrik garestitu ziren bitartean. Orobat, zerbitzuek, prezioen igoerak

apaltzeko orduan erresistentzia handia eskaini ohi dute, %1,4 garestitu ziren 2010eko batez bestean.

Prezioek 2010. urtean izan zuten bizkortzearen zati handi bat indize orokorraren osagai gorabeheratsuenen –kasu honetan, energiako ekoizkinak izan ziren- portaeraren ondorioa izan zenez, azpiko inflazioak bilakaera hobea eskaini zuen eta bere hazkunde tasa apaldu zuen 2009an jasotako %1,1etik 2010eko %0,7ra. Indize orokorraren eta azpiko inflazioaren arteko alde horrek pentsarazten du prezioen bizkortzearen jatorria koiunturakoa dela eta, ondo bidean, urte arteko tasa batean kontuan hartzen diren hamabi hilabeteak baino gehiago ez duela zertan iraun beharko. Ideia hori sendotzeko, adierazi behar da hondar inflazioak, hau da, energiako ekoizkinak eta elikagai freskoak barne hartzen dituen indizea, urteko batez bestean hamar puntutik gorako bizkortzea izan zuela, 2009an jasotako %-3,6tik 2010ean izandako %6,6ra iritsi arte.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Indize orokorra	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	4,1	3,8	6,3	-0,1	-0,7
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,8	2,0	6,6	4,0	8,4	10,7
- Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,1	1,4	0,7	-1,4	-0,2
- Etxebizitza	5,0	6,3	3,6	6,4	1,9	3,1
- Etxeko hornidura	2,2	3,0	3,5	3,0	1,8	0,9
- Medikuntza	1,0	1,9	-0,5	-0,1	-0,2	-0,1
- Garraioa	5,6	4,3	2,3	5,7	-5,3	6,5
- Komunikazioak	-1,6	-1,3	0,2	0,0	-0,6	-0,7
- Aisia eta kultura	-0,3	0,4	-0,9	0,3	0,3	-0,9
- Irakaskuntza	4,2	4,5	4,5	4,7	4,2	2,2
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,4	3,9	4,6	4,6	2,4	1,7
- Besteak	3,1	3,0	3,2	3,4	2,5	2,1


Iturria: INE.

2010eko urteko txostena

Produktu taldeka aztertzen bada, prezioen gehikuntza handienak erregaiekin lotura estuena dutenetan, hau da, garraioan eta etxebizitzan, eta araututako prezioetan gauzatu zen, azken hauen artean tabakoa nabarmentzen delarik. Gainontzeko taldeek norabide egonkorra erakutsi zuten eta beraien artean azpimarratu behar da aisia eta kulturean, komunikazioetan, elikagaiak eta alkoholik gabeko edarrietan, jantziak eta oinetakoetan, eta medikuntzan jaso ziren beherakadak.

Petrolioaren garestitzeak EAEko inflazioan Europakoan baino eragin handiagoa duen arren eta Espainiako gobernuak hainbat zerga eta araututako prezio nabarmen igo zituen arren, Europarekiko inflazio tarte ia ez zen aldatu. Hain zuzen ere, EAEko KPI 2010. urtean %1,7an kokatu bazen, Europar Batasuneko balioa %2,1era iritsi zen eta Euroguneko kontsumo prezioak %1,6 areagotu ziren. Beraz, bigarren urtez jarraian, eremu horrekiko inflazio tarte oso txikia izan da. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da EAEko indizea ezin dela bere horretan alderatu Europakoekin, zeren eta INEk ez baitu EAEkoa harmonizatzen Eurostatek emandako irizpideen arabera eta erkidego bakoitzeko ondasun eta zerbitzu guztiak biltzen ahalegintzen da. Edozein kasutan, Estatuko KPIren eta KPIHren artean egoten diren aldeak ez dira oso garrantzitsuak izaten. Horregatik, lerro hauetan adierazitako ondorioak ontzat jo daitezke.


KPIren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta Eurostat.

Are gehiago, indize orokorra alderatu beharrean azpiko inflazioa konparatzen bada, lortzen den emaitza EAEko ekonomiaren aldekoa da. Hain zuzen ere, adierazle horrek EAEn izan zuen batez besteko emaitza %0,7 izan zen, Europar Batasunean %1,5era eta Ekonomia eta Moneta Batasunean %1,0ra iritsi zen bitartean.

Azpiko inflazioaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta Eustat.


Antzeko emaitzak jaso ziren arren, alde garrantzitsuak hautematen dira prezioen bilakaeran talde batzuetan eta besteetan. Izan ere, Eurogunearikiko inflazio tartea bereziki edari alkoholdunak eta tabakoan, garraioan eta etxebizitzan gertatu zen. Zalantzarik gabe, lehen taldeak izan zuen eragin handiena diferentzialaren gehikuntzan, urteko hazkundera %6,9ra iritsi baitzen, urtean zehar onartu zen tabakoaren gaineko zergen igoeraren ondorioz. Beste aldetik, garraioko (%1,9) eta etxebizitzako (%1,1) prezioetan hauteman ziren erritmo desberdintasuna, hurrenez hurren erregaien prezioen garestitzeak eta berogailuetarako gasolioaren salneurriaren igoerak eragin zuten, EAEko kontsumoko prezioetan Eurogunekoetan baino eragin handiagoa izan zutelako.

Beste muturrean, ondasun eta zerbitzu batzuek prezioak jaitsi zituzten 2009ko balioen aldean. Horixe gertatu zen elikagaiak eta alkoholik gabeko edarrietan, medikuntzan, jantziak eta

2010eko urteko txostena

oinetakoetan, eta aisia eta kulturen. Portaera horri esker, Eurogunearekiko inflazio tartea gutxitzea lortu zen.

EA Eren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2010eko batez besteko balioak



Iturria: INE eta Eurostat.

Industriako prezioei dagokienez, IPRIk, KPIk bezala, urte hasieran jaso zituen baliorik apalenak, garai hartan tasa negatiboak ere (%-1,1 urtarrilean) jaso zituelako. Aitzitik, urte amaieran urte osoko tasarik gorenak jaso zituen, batez ere energiako ekoizkinen garestitzearen ondorioz. Horiek horrela izanda, IPRIk 2009ko batez bestean oso emaitza negatiboa (%-6,0) markatuzetik 2010ean %3,3ko balioa jasotzera igaro zen. Gorakada horren atzean, bereziki, dagoeneko aipatua izan den energiaren garestitzea (%11,7), petrolioaren upelak izan zuen bilakaerarengatik, eta neurri txikiagoan bitarteko ondasunak (%3,1) egon ziren, azken hauek lehengaiak nazioarteko merkatuetan ezagutu zuten garestitzearen ondorioz. Aitzitik, kontsumorako eta ekipamendurako ondasunek ez zuten ia inolako aldaketarik jaso eta, hurrenez hurren, %0,2 eta %0,1eko igoerak izan zituzten. Inbertsioaren eta kontsumoaren ahultasunak, eta metatutako ondasunen stockek talde horietako prezioak bere horretan uztea ahalbidetu zuten.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2006	2007	2008	2009	2010
Indize orokorra	5,9	4,9	5,5	-6,0	3,3
- Kontsumoko ondasunak	2,8	3,5	4,2	0,5	0,2
- Kontsumo iraunkorrak	0,7	1,5	3,0	0,2	-0,5
- Kontsumo iragankorrak	3,7	4,4	4,7	0,6	0,5
- Ekipamendu ondasunak	0,7	3,8	2,6	1,3	0,1
- Bitarteko ondasunak	6,7	7,1	3,8	-7,9	3,1
- Energia	12,9	1,2	15,7	-14,6	11,7

Iturria: Eustat.


Industria prezioen indizearen bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Krisi urteetan gehikuntza handiak jaso ondoren, 2010. urtean lan kostuek enpresen zailtasunei eta inflazioaren moteltzeari erantzun zieten. Izan ere, urte horretako hazkundea aurreko urtekoa baino askoz ere txikiagoa izan zen (%1,4 eta %2,8, hurrenez hurren). Kostuak leuntzea eragin zuen faktore behinena bestelako kostuak (%-0,4) deitzen den osagaiaren

2010eko urteko txostena

jaitsiera izan zen, iraitzeengatik ematen diren sariak urteko azken zatian gutxitu zirelako. Horrek agerian uzten du langileen kopurua gutxitzeko joera amaitzen ari zela.

Azkenik, 2010ean indarrean zeuden lan hitzarmenetan adostutako soldata gehikuntza (%1,9) aurreko urteetako baino askoz ere txikiagoa izan zen, prezioek 2009an izan zuten ezohiko igoera txikiarengatik. Urtea aurrera zihoan heinean, lan hitzarmenen igoerak motelduz joan ziren. Hain zuzen ere, 2010. urtean zehar sinatu ziren hitzarmenek adostu zuten batez besteko igoera (%1,7) urte askotarako sinatu zirenean baino zertxobait txikiagoa izan zen. Erabakitzeko eremuaren arabera, enpresako hitzarmenek sektorekoek baino askoz ere igoera handiagoa adostu zuten, ohikoa denaren aurka.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Indarrean dauden hitzarmenak	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7	1,9
- Urtean zehar sinatutakoak	4,3	5,0	4,1	4,8	2,8	1,7
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	4,6	5,0	4,2	5,2	2,8	1,7
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,1	4,2	4,1	2,6	2,4

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontuetako eragiketa bateratuei dagokienez, aurreko urtean hasieran aurreikusitakoarekin egiten den alderaketak hobekuntza nabarmena erakusten du. Alde batetik, diru sarrera arruntek, bi urtez jarraian balio negatiboak jaso ondoren, zenbateko positiboetara itzuli ziren. Beste aldetik, gastuak murrizteko joerak aurrera jarraitu zuen eta balio negatiboak jaso zituen.

Ekonomia suspertzeko asmoz, 2010eko aurrekontuak herstura ezarri nahi zuen, ahalegin hori bai gastu arruntetan (%-2,8) bai kapitaleko gastuetan (%-1,1) adieraziz. Lehenengoetan, azpimarratu behar da, alde batetik, langileen ordainketen bilakaera (%-0,6), zeinean Eusko

Jaurlaritzako funtzionarioen laboralen eta behin-behineko langileen soldatetan neurri zorrotzak hartu baitziren. Beste aldetik, transferentzia arruntak gutxitu nahi ziren. Halaber, aipatu den aurrekontu herstura horrek oinarrizko eta garraioeko azpiegituretara bideratutako baliabideak murriztu zituen. Beraz, inbertsioetarako gastuak gutxitu ziren aurreko urteko diru kopuruekiko.

Diru sarreren ikuspegitik, berriz, seinالاتu behar da hauek hazkunde garrantzitsua izan zutela, aurreko bi urteko joera bertan behera utziz. Sarrera gehienak eragiketa arrunten diru sarrerak dira, %2,5eko gehikuntza izan baitzuten, neurri batean ekonomia jardueraren susperraldi hasi berriari esker, baina baita zergen igoerari esker ere. Halaber, adierazi behar da finantza eragiketen gorakada nabarmena, Eusko Jaurlaritzak 2010. urtean zehar kanpo zorpetzea gehiago erabili zuelako.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2010	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2005	2006	2007	2008	2009	2010
1. SARRERA ARRUNTAK	12.810.266	11,2	11,2	11,5	-5,2	-9,9	2,5
2. GASTU ARRUNTAK	12.472.136	7,3	8,8	10,1	8,1	3,2	-2,8
Langileen gastuak	2.269.349	5,5	5,7	8,1	7,7	6,3	-0,6
Funtzionamenduko gastuak	3.838.969	7,0	10,6	12,6	11,6	10,4	-0,3
Finantza gastuak	128.739	-13,1	-13,5	-20,5	-5,3	1,3	79,5
Transferentzia arruntak	6.235.079	8,6	9,4	10,1	6,6	-1,5	-6,0
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	338.130	32,5	21,9	16,9	-54,1	-123,7	99,8
4. KAPITALEKO SARRERAK	219.770	13,8	-22,4	-33,2	54,4	16,0	84,8
5. KAPITALEKO GASTUAK	2.308.928	2,2	11,1	11,1	15,0	14,0	-1,1
Inbertsio errealak	990.047	4,3	7,0	10,4	6,5	4,7	-1,0
Kapitaleko transferentziak	1.318.881	-0,1	15,7	11,8	23,7	22,2	-1,1
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-2.089.158	-1,2	-14,3	-14,0	-13,4	-13,9	5,7
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	-1.751.028	149,6	33,4	20,7	-137,1	-392,7	31,5

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

2010eko urteko txostena

Susperraldi ahuleko testuinguru batean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diru bilketa bateratuak %8,4ko gehikuntza lortu zuen 2010ean urte arteko tasan, azken bi urteko beherakada bizia bertan behera utziz. Joera aldaketa horren azalpena BEZaren portaera nabarmenean bilatu behar da, zerga bidezko diru sarreren guztizkoan pisu garrantzitsua duen zerga bat delako, eta baita urtean zehar zergen esparruan onartu ziren beste neurri batzuetan ere. Zergen bi multzo handiek, hots, zuzeneko zergek eta zeharkakoek, portaera kontrajarriak izan zituzten. Izan ere, lehenengok ezin izan zuten 2009ko balioak berdindu eta bigarrenek alde handiz gainditu zuten erreferentzia hori.

Zuzeneko zergen artean, PFEZk emaitza positiboa lortu zuen eta %3,8 areagotu zuen bere diru bilketa, 2010ean enplegua %0,8 gutxitu zen arren. Igoera horren atzean dauden arrazoi batzuk 2009an indarrean egon zen 400 euroko kenketa, salbuespen batzuekin, desagertu izana eta aurreko urtean baino itzulketa gehiago egin izana dira.

Sozietateen gaineko zergak, berriz, oso balio negatiboak (%-19,9) biltzen jarraitu zuen, krisi osoan zehar erakutsi zituenak bezalakoak. Beherakada garrantzitsu hori azaltzen duten arrazoiaren artean, enpresek dituzten zailtasunez gain eta aitortu beharreko mozkinen faltaz gain, foru aldundiek eman zizkien erraztasunak aipatu behar dira. Erraztasun horien artean kokatzen dira ordainketak egiteko epeak atzeratu izana eta itzulketak azkarrago tramitatu izana, enpresei likidezia emateko.

Zeharkako zergei dagokienez, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) izan zen diru bilketaren protagonista nagusia, zerga horrek azken urteetako gorakadarik handiena (%26,1) lortu zuelako. Gehikuntza horren atzean ezkututzen diren zio behinenak, eta kontuan izanda urte horretan kontsumo nominala %2,4 baino ez zela hazi, Espainiako gobernuak ezarri zuen eta gero foru aldundiek tokiko legetara eraman zuten tipoen igoera, eta Arabako Foru Aldundiak Rover kasuko ebazpenaren ondorioz lortu zituen aparteko diru sarrerak dira. Hala bertan kudeatutako BEZa nola zergaren doikuntzak oso gehikuntza tasa nabarmenak lortu zituzten 2010. urtean.

Azkenik, zerga berezi guztiek aurreko urteko diru bilketa hobetu zuten, salbuespen bakarra hidrokarburoen gainekoa izan zelarik (%-0,2), hain zuzen ere diru bilketan pisu handiena duen zerga. Gainontzekoen artean, azpimarratu behar da argindarraren gaineko zerga, 2009ko beherakadaren ondoren (%-1,6), gainontzekoak baino gehiago hazi zelako (%33,2),

atzeratutako diru sarreren ordainketarengatik, tarifen batez besteko igoerarengatik eta kontsumoaren igoera leunarengatik.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2010	2005	2006	2007	2008	2009	2010
PFEZ	4.065.868	11,5	10,3	13,6	4,5	-12,1	3,8
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.308.649	8,2	8,7	7,6	7,0	-3,6	3,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	224.646	17,3	13,7	56,2	31,6	-14,7	-15,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	82.630	5,5	8,3	27,1	70,6	13,4	2,7
- Ondare irabazien atxikipenak	18.250	53,5	35,7	90,2	-1,0	-56,3	4,8
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	160.245	2,5	5,9	4,0	-4,4	-6,4	-1,5
- Kuota diferentzial garbia	-728.551	12,9	3,7	27,8	-67,4	-68,5	6,1
Sozietateen gaineko zerga	987.056	26,4	17,5	20,2	-16,8	-27,2	-19,9
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	224.646	17,3	13,7	56,2	31,6	-14,7	-15,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	82.630	5,5	8,3	27,1	70,6	13,4	2,7
- Ondare irabazien atxikipenak	18.250	53,5	35,7	90,2	-1,0	-56,3	4,8
- Kuota diferentzial garbia	661.531	27,8	17,9	15,4	-26,0	-31,6	-23,7
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	131.328	48,8	53,3	149,2	6,7	-39,4	15,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	70.541	70,3	-3,5	-0,2	7,4	-2,1	-11,9
Ondarearen gaineko zerga	3.641	14,5	18,8	21,4	17,5	-72,6	-92,7
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.258.435	16,4	12,7	17,2	-1,6	-18,3	-2,5
BEZaren bertoko kudeaketa	3.478.206	23,7	16,5	5,7	-13,3	-13,0	26,1
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	194.788	10,1	19,7	1,1	-50,3	-17,7	28,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	80.945	2,9	18,4	-1,3	-14,3	-17,6	-15,0
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	34.339	5,1	8,4	9,5	-36,1	-24,5	-7,6
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.506.234	3,5	5,3	6,4	-0,3	-1,4	2,1
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	49.266	6,0	5,2	3,7	2,1	-3,1	-4,2
Aseguru sarien gaineko zerga	76.048	9,6	1,4	8,6	-1,3	-5,5	4,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.419.826	15,5	13,2	5,4	-12,4	-9,8	16,7
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	110.058	1,7	-1,6	14,3	-4,0	-11,2	9,1
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	10.788.319	15,8	12,8	11,4	-6,6	-14,6	6,4
BEZaren doikuntza	1.036.993	-2,3	-0,3	-2,7	-7,2	-29,6	34,9
Zerga berezian doikuntza	-125.305	17,0	-7,1	-90,8	-15,5	7,3	-9,4
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.700.007	13,7	11,4	9,7	-6,8	-15,9	8,4

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

2009ko urrian, Greziako gobernu berriak onartu zuen nazioaren kontuak faltsutuak izan zirela eta herrialdearen egoera benetan zaila zela: defizit fiskal erreala %13,6ra iritsia zen eta zor publikoa, berriz, BPGren %115era heldua zen. Greziako egoera fiskal zailak etengabeko tentsio uneak sortu zituen zor publikoko, truke tasako eta burtsa merkatuetan, eta beste herrialde batzuk ere kutsatu zituen, Euroguneko herrialde ezegonkorrenen egoera zalantzan jarritz. Hori dela eta, Portugalek, Irlandak, Italiak eta Espainiak, Greziak bezala, beren kontuak doitzeko neurriak hartu behar izan zuten. Finantza krisiaren atal berri honi zor subiranoaren krisia deitu zitzaion.

Egoera hain zen larria ezen eremuaren egonkortasuna berreskuratzeko eta likidezia arazoak zituzten herrialdeei laguntza emateko Europako Banku Zentrala eta NDF behartuta egon ziren Europako Egonkortasun Funtsa sortzera. Aldi berean, Europako herrialde nagusi guztiek finantza publikoak doitzeko berezko planak onartu behar izan zuten, hersturako aro bati hasiera emanez.


Hazkunde faltak eta estatu batzuen kaudimenez hedatu zen kezka, doiketarako lehen neurrien ondoren, bigarren eta hirugarren planak martxan jartzea behar izan zuen. Hala eta guztiz ere, ezin izan zen merkatuen konfiantza berreskuratu eta inbertitzaileek herrialde sendoagoetan babesa hartzea erabaki zuten. Horren ondorioz, desoreka handienak zituzten herrialdeetan nabarmen igo zen zor subiranoaren arrisku saria. Hain zuzen ere, 2010eko ekainean, Espainiako, Greziako, Portugaleko eta Irlandako 10 urterako zor subiranoaren diferentziala Alemaniako bonuarekiko –herrialde hori zen sistemaren aingura, zor seguruen eta gorabehera gutxien izan zezakeena zela uste zelako- 212 oinarri puntutan, 802tan, 340tan eta 300tan kokatu zen, hurrenez hurren.

Urte amaieran, Irlandarekiko arriskua berriro piztu zen eta merkatuak astindu zituen. Hersturako egitasmoak ezarri zituen arren, Anglo-Irish bankuaren erreskateak 2010eko defizita BPGren %12tik %32ra zabaltzera behartu zuen Irlandako gobernuak, eta horrek, bere aldetik, Egonkortasuneko Funtsaren erreskatea onartzera behartu zuen. Halaber, desoreka handienak zituzten periferiako ekonomiek berriro nozitu zuten merkatuen mesfidantza eta ikusi zuten nola diferentzialek euroa sortu zenetik inoizko mailarik gorenak markatzen zituzten. 2010eko abenduan, Espainiako arrisku saria 300 oinarri puntura hurbildu zen eta Portugalekoak 440 oinarri puntuak gainditu zituen.


Merkatuen gorabeheren eta ekonomiaren ahultasunaren aurrean, herrialde aurreratuetakoko banku zentralak beren politiken norabidea eta ezarketa malgotu zuten. Izan ere, 2009ko amaieran hazkundera sustatzeko ezohiko neurriak urratsez urrats kentzen hasi behar zela eztabaidatu bazen ere, finantza merkatuetako ezegonkortasunak eta hazkundera ezak moneta agintariak behartu zituzten oso tonu hedakor bati eusteko, diruaren prezioa hutsala zelarik. Halaber, laguntzen pakete handi batek indarrean jarraitu zuen (zor publikoaren eta aktiboen erosketak, finantzaziorako baldintzak errazteko egitasmoak,...) merkatuari likidezia emateko.

**Banku zentralerako esku-hartze tasak
Ehunekoak**


AEB




Erresuma Batua



Eurogunea



Japonia



Iturria: Espainiako Bankua.

2010eko urteko txostena

Aitzitik, 2010. urtean zehar erakutsi zuten bizitasunaren ondorioz eta inflazioaren presioa areagotu zenez, garapen bidean dauden ekonomietako moneta agintariek neurri murriztaileak ezarri zituzten eta moneta baldintzak gogortu zituzten. Azpimarratu behar dira Txinako erreferentziako interes tasaren tipoaren gehikuntzak, bitan igo baitzen %5,81era iritsi arte. Orobat, Indiako esku-hartze tasa 150 oinarri puntutan igo zen %6,25era arte, eta Brasilen 200 oinarri puntu, interes tasa %10,75ean utziz.

Euroak ere intentsitate handiz pairatu zituen merkatuen gorabeherak. Euroguneko hainbat ekonomiaren egoera fiskalarekin lotzen diren zalantzak izugarri areagotu ziren eta ratingeko enpresa batzuk eta ekonomista asko europar dibisaren etorkizunaz zituzten dudak azaltzera iritsi ziren. Euroa babesteko neurriak hartu baziren ere, europar diruak balioa galdu zuen nabarmen dibisa nagusien aldean.


Hain zuzen ere, euroaren truke tasa dolarrarekiko 1,33an kokatu zen urteko batez bestean, azken lau urteko txikiena baita. Euroguneko herrialde periferikoetan zegoen arrisku pertzepzioa gehitu izanak eta AEBetan emaitza hobekak lortu izanak euroaren truke tasa 1,20 dolarretara eraman zuten ekainean, balio txikiena delarik. Euroaren balio galera hain bizia izan zen ezen ekonomista batzuek dolarrarekiko parekotasuna laster iritsiko zela iragarri baitzuten. Hala ere, urte amaieran datu ekonomikoak hobetu zirenez, euroak galdutako balioa berreskuratu zuen, euro baten truke 1,40 dolar inguru ordaintzera heldu arte.

Gainontzeko dibisekiko joera antzekoa izan zen. Finantza merkatuetan bizi zen ezegonkortasunaren ondorioz, ordura arte carry trade eragiketetan finantzazio iturria izan ziren diru batzuk funtsen hartzaileak izatera igaro ziren. Horiek horrela, yenak eta Suitzako frankoak balio maximoak jaso zituzten euroarekiko. Izan ere, suitzar frankoa 1,28 frankoetara erortzera iritsi zen eta dolarrarekiko parekotasuna lortu zuen irailaren amaieran. Yena, berriz, 110 yen euroko trukatzera iritsi zen, eta 116,5 yenetan kokatu zuen urteko batez besteko kotizazioa, 2001etik inoizko baliorik txikiena delarik.


Zor subiranoaren arazok ekonomiaren iraunkortasunaz sortu zuten kezkek 2010eko lehen seihilekoa korapilatu zuen eta Atlantikoaren bi aldeetako burtsek %10aren eta %15aren arteko galerak izan zituzten. Halaber, gorakadak eta beherakadak etengabe tartekatzen ziren, 2009ko hasieratik ikusten ez ziren balioak gaindituz.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Urteko bigarren erdian, egoera egonkortu zen. Europar Batasuneko kreditu erakundeek tentsio probetan lortu zituzten emaitza onak eta datu ekonomikoaren hobekuntzak irabaziak ekarri zituzten kontinente guztietako burtsa merkatuetara. Hala eta guztiz ere, susperraldi horretan ere ezegonkortasuneko beste une batzuk bizi ziren. Zor subiranoaren krisia berriro agertu zen bigarren erreskate bat, oraingoan Irlandarena, bideratu behar zela jakin zenean. Horrek ziurgabetasuna areagotu zuen eta harekin batera burtsak beheratu ziren, bereziki Europakoak.


2010eko urteko txostena

Hain zuzen ere, 2010. urtean IBEX 35 indizeak %17,4 egin zuen behera eta Greziako Athens Compositetek, berriz, %35,1.

Azaleratzen ari diren merkatuetan, ekonomiaren bilakaera onak eta interes tasa altuagoek kapitala erakarri zuten kantitate handietan, irabazi handiak eraginez. Kapitaleko fluxu horiek Asiako merkatuetara bideratu ziren nagusiki, tokiko akzioen salneurriak goraraziz eta dolarra kaltetuz. Eremu horretako irabaziak Asiako hego-ekialdeko herrialdeek lideratu zituzten, Indonesiako burtsako indize nagusiak %46 irabazi baitzuen 2010ean. Ekialdean, Hego Koreak lortu zituen irabazi handienak, KOSPI indizeak %22aren inguruko irabaziak jaso zituelako.

Berankortasunaren igoerak eta EBZk likidezia lortzeko orduan ezarri zituen arau zorrotzagoek finantza erakundeen arteko diferentzialak areagotu zituen, eta beraien artean euriborraren igoera ere. Gorakada horiek diferentzialen gehikuntzarengatik, eta ez esku-hartzeko tipoen igoerarengatik, izan zirenez, tamaina txikikoak izan ziren. Beraz, goranzko joera leuna erakutsi zuen arren, 12 hilabeteko euriborrak balio txikiena markatu zuen berritri eta %1,35ean kokatu zen 2010ean.

Urte baterako euriborraren bilakaera




Iturria: Espainiako Hipoteka Elkartea.


Krisiaren aurreko garaian arlo pribatuak pilatu zuen zorpetze maila altuaren ondoren, zorgabetzeko fase bizi bat iritsi zen. 2007ko hirugarren hiruhilabetetik 2010eko lehen hiruhilekoa arte, kreditu pribatuak moteltzeko joera garbia erakutsi zuen eta hainbat hiruhilekotan hazkunde tasa negatiboak ere jaso zituen. 2010eko bigarren hiruhilekotik, joera hori irauli zen eta tasa positiboak berreskuratu ziren, nahiz eta tasa horiek ez ziren iritsi historikoki jaso ziren batez bestera. Zehazkiago adierazita, kreditu pribatuak %2,7 areagotu ziren. Espainiako Bankuaren datuen arabera, gehikuntza hori familien gastuetara bideratutako kredituen hazkundeak eragin zuen (arlotu pribatuari emandako kreditu guztiaren %68 biltzen baitu) eta, bereziki, etxebizitzak erosteko zuzendutakoak (%3,2), higiezin arloko jarduerak eta eraikuntza finantzatzerara bideratutako kredituak %-9,3ko tasa jaso zuen bitartean.

Kredituen eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

EAEko aurrezki kutxen berankortasunaren bilakaerak krisiaren eragin negatiboa erakusten jarraitu zuen. Langabeziaren etengabeko igoerak eta eraikuntzaren krisiak, ordura arte ez baitzuen inolako hobekuntzarik erakutsi, ordaindu gabeko kredituak haztea eragin zuten. Ekonomiaren atzeraldia 2007ko amaieran hasi zenetik, berankortasuneko tasak goranzko joera leuna eta etengabea eduki du, %0,88ko tasa batetik 2010eko %3,08ra igoz. Hiru urteko epean tasa hori hirukoiztu eta gehiago egin duen arren, maila hori oraindik apala da, are gehiago Espainiako berankortasuneko tasarekin alderatzen bada, 2010eko amaieran %5,81era iritsi

2010eko urteko txostena

baitzen, hots, 1995eko abendutik inoizko maila gorenean kokatu zen. Hala eta guztiz ere, estaldura orokorreko ratioak, ordaindu gabeko kredituak estaltzeko dauden funtsak baitira, galdutako eremua berreskuratu zuen eta %84,85ean kokatu zen, atzeraldiaren aurreko garaian izan zuen %202,6tik oso urrun, baina 2009an lortutako %83,88 baino zertxobait gorago dagoelarik.

Hala ere, banku erakundeen egoerak kezka iturria izaten jarraitu zuen nazioarteko inbertitzaileen artean. Hori dela eta, Espainiako gobernuak eta Espainiako Bankuak aurrezki kutxen berrantolaketa bultzatu zuten, finantza sendotasuna hobetzeko asmoz. Helburu horrekin, aurrezki kutxen kopurua 45etik 17ra murriztu zuten. EAeko erakundeek, oraingoz, ez dute bat egiteko beharra ikusi, nahiz eta 2011rako fusio hotza aurreikusten den.

Azkenik, gordailu pribatuak, finantza krisiaren aurreko urteetan %14tik gorako hazkundeak lortu ondoren, beheranzko joera garbia erakutsi dute 2008. urtetik. 2010. urtean, joera hori areagotu zen eta gordailu pribatuek, lehen aldiz gutxienez hogeita hamar urtean, %0,6 egin zuten behera. Finantza erakundeek eperako gordailuen kopurua areagotzeko ahaleginak egin zituzten arren, bilakaera txarra izan zuten, baina nolabaiteko hobekuntza izan zuten 2009an jasotako %-4,1eko emaitzaren aldean. Aurrezki kontuetan eginiko ezarpenek bakarrik lortu zuten hazkunde positibo bat (%5,3), EAeko eragileek likideziaren aldeko hautua egin zutelaren agerian utziz.

